

Hipertentsio arterialari

buruzko Praktika
Klinikoaren Gida

2007ko EGUNERATZEA



Osakidetza



OSAKIDETZA
DEPARTAMENTO DE SALUD

Osakidetzako praktika klinikoko gidak

Hipertentsio arterialari buruzko

Praktika klinikoaren gida

Laburpena

2007ko eguneratzea

FINANTZAKETA: PKG hau Osakidetzak eta Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak finantzatu dute. 2005. urtean ikerketarako beka bat jaso du, teknologia sanitarioen ebaluaziorako batzordearen eskutik, Ostebak kudeatua.

INTERES-GATAZKAK: José Ramón Aguirrezabala Jaca-k, Laura Balagué Gea-k, Ana Gorroñogoitia Iturbe-k, Ina Idarreta Mendiola-k, Carmela Mozo Avellaned-ek, Rafael Rotaeché del Campo-k, Eulali Mariñelarena Mañeru-k, Elena Ruiz de Velasco-k, Jesús Torcal Laguna-k, Fernando Arós Borau-k, Mónica Ausejo Segura-k, Julián Bajo García-k, Alfonso Casi Casanellas-ek, Juan Antonio Divisón Garrote-k, Arritxu Etxeberria Agirre-k, Félix Miguel García-k, Ana Lourdes Iglesias-ek, Julián Ocharán-ek, Jose Antonio Quindimil-ek eta Ramón Saracho Rotaeché-k aitortu dute ez dagoela inolako interes-gatazkarik.

Jesús Morán Barrios-ek diru-laguntzak izan ditu industria farmazeutikoaren aldetik kongresuetara joan ahal izateko. Blanca Novella Arribas-ek hizlari bezala parte hartu du industria farmazeutikoak finantzatzutako ikastaro batean. Mariano de la Figuera von Wichman-ek preskripizioari lotutako pizgarriak jaso ditu ICSren (Kataluniako Osasun Institutuaren) eskutik. Era berean, hainbat konpainia farmazeutikok diru-laguntzak eman dizkiote ikastaroetara joateko, hitzaldiak emateko nahiz ikerketetan eta aholkularitzako lanetan parte hartzeko.

DOKUMENTU HAU HONELA AIPATU BEHAR DA:

Rotaeché del Campo R, Aguirrezabala Jaca J, Balagué Gea L, Gorroñogoitia Iturbe A, Idarreta Mendiola I, Mariñelarena Mañeru E, Mozo Avellaned C, Ruiz de Velasco Artaza E, Torcal Laguna J. Hipertentsio Arterialari buruzko Praktika Klinikoko Gida (2007ko eguneratzea). Osakidetza. PKG. Gasteiz. 2008

Argitalpena: 2008
Ale kopurua: 500
© Osakidetza eta Osasun Saila
Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
<http://www.osakidetza.euskadi.net>

Argitaldaria: Osakidetza
Araba kalea, 45
01006 VITORIA-GASTEIZ

ISBN:
Lege Gordailua:

Aurkibidea

Egileak eta gidaren berrikuspena	5
1. Sarrera	7
1.1. Gidaren justifikazioa	
1.2. Helburuak	
1.3. Metodologia	
1.4. Gidaren erabilera	
2. Paziente hipertentsoaren hasierako balorazioa	11
2.1. Hipertentsio arterialaren (HTA) baheketa edo screening-a	
2.2. HTAren definizioa eta sailkapena, PAren zifren eta arrisku kardiobaskularraren arabera	
2.3. HTAren diagnostikoa	
2.3.1. Presio arterialaren monitorizazio ambulatorioa (PAMA): balio normalak eta indizazioak	
2.3.2. Presio arterialaren autoneurketa (PAAN): balio normalak eta indizazioak	
2.3.3. PAAN metodoarekin beharrezkoak diren PA neurketen kopurua	
2.3.4. PAAN metodoa hipertentsio kliniko isolatuaren edo bata zuriko HTAren diagnostikoan	
2.3.5. Bata zuriko HTAren esanahi klinikoa	
2.4. Paziente hipertentsoaren hasierako azterketa	
2.4.1. Mikroalbuminuria neurtzea paziente hipertentsoan	
2.5. Jarraipenerako proposamena	
2.5.1. Helburuko zifrak	
2.5.2. Kontrolen aldizkakotasuna	
2.5.3. Betetze terapeutiko farmakologikoa	
3. Paziente hipertentsoaren tratamendua	29
3.1. Neurri ez farmakologikoak HTAren tratamenduan	
3.1.1. Gatz-kontsumoa	
3.1.2. Ariketa fisikoa	
3.1.3. Pisuaren kontrola	
3.1.4. Estresaren kontrola	
3.1.5. Alkoholaren kontsumoa	
3.1.6. Potasioaren kontsumoa	
3.1.7. Kaltzioaren eta magnesioaren kontsumoa	
3.1.8. Omega 3 gantz-azidoen kontsumoa	
3.1.9. Zuntzaren kontsumoa	
3.1.10. Kafearen kontsumoa	
3.1.11. Bizimodu-estiloaren aldaketak: hainbat neurri ez-farmakologikoren konbinazioa	
3.1.12. Heziketa edo antolamendu mailako esku-hartzeak	
3.2. HTAren tratamendu farmakologikoa gaixotasun asoziatuak gabeko pazienteetan	
3.2.1. Diuretikoak	
3.2.2. Betablokeatzaileak	
3.2.3. AEBlak	
3.2.4. Kaltzioaren antagonistak	
3.2.5. Alfablokeatzaileak	
3.2.6. AHA II	
3.2.7. Tratamendua bertan behera uztea albo-ondorioengatik	
3.2.8. HTAren tratamendu farmakologikoa adineko pertsonetan	

- 3.3. Tratamendu farmakologikoa egoera berezietan
 - 3.3.1. Diabetes mellitusa, nefropatiarik gabe
 - 3.3.2. Nefropatia diabetikoa
 - 3.3.3. Nefropatia ez diabetikoa
 - 3.3.4. Bihotz-gutxiegitasuna
 - 3.3.5. Kardiopatia iskemikoa
 - 3.3.6. Gaixotasun zerebrobaskularra
 - 3.3.7. Arteriopatia periferikoa
 - 3.3.8. Ezkerreko bentrikularen hipertrofia
 - 3.3.9. Asma eta BGBK
- 3.4. Terapia konbinatua
- 3.5. Urgentzia hipertentsiboak

ERANSKINAK 71

- 1. **eranskina** - PKG eguneratzeko metodologia
- 2. **eranskina** - Paziente hipertentsoaren jarraipena
- 3. **eranskina** - Presio arteriala modu egokian hartzeko arauak
- 4. **eranskina** - Presio arterialaren monitorizazio anbulatorioa (PAMA) egiteko gomendatzen diren aparatuak
- 5. **eranskina** - Presio arterialaren monitorizazio anbulatorioa (PAMA) erabiltzeko jarraibidea
- 6. **eranskina** - Etxean presio arterialaren autoneurketa (PAAN) egiteko gomendatzen diren aparatu automatiko oszilometrikoak
- 7. **eranskina** - Etxean presio arterialaren autoneurketa egiteko arauak
- 8. **eranskina** - Presio arterialaren monitorizazio anbulatorioari buruzko jarraibideak pazientearentzat
- 9. **eranskina** - Sodio gutxi daukan dieta edo jan-neurria
- 10. **eranskina** - Hipertentsioaren kontrako botikak: albo-ondorioak, interakzioak eta arreta-neurriak
- 11. **eranskina** - Hipertentsioaren kontrako botiken hautaketa
- 12. **eranskina** - Hipertentsioaren kontrako tratamendua elkartutako patologien arabera indibidualizatzea
- 13. **eranskina** - Paziente hipertentsoaren arreta ebaluatzeko proposamena
- 14. **eranskina** - 10 urtera arrisku koronarioa estimatu eta balioesteko Framingham taulak, Espainiako biztanleriara egokituak
- 15. **eranskina** - Glosarioa eta laburdurak

Bibliografia 115

Egileak eta gidaren berrikuspena

Koordinatzailea

Rafael Rotaache del Campo, Familia-medikua. Altzako LMAU (Gipuzkoa Ekialdea eskualdea).

Egileak

José Ramón Aguirrezabala Jaca, Familia-medikua. Errekaldeko LMAU (Bilbo eskualdea).

Laura Balagué Gea, Erizaina. Iztietako LMAU (Gipuzkoa Ekialdea eskualdea).

Ana Gorroñogoitia Iturbe, Familia-medikua. Errekaldeko LMAU (Bilbo eskualdea).

Ina Idarreta Mendiola, Familia-medikua. Tolosako LMAU (Gipuzkoa Mendebaldea eskualdea).

Carmela Mozo Avellaned, Farmazialaria (Gipuzkoa Ekialdea eskualdea).

Rafael Rotaache del Campo, Familia-medikua. Altzako LMAU (Gipuzkoa Ekialdea eskualdea).

Eulali Mariñelarena Mañeru, Familia-medikua. Pasaia Antxoko LMAU (Gipuzkoa Ekialdea eskualdea).

Elena Ruiz de Velasco Artaza, Farmazialaria (Bilbo eskualdea).

Jesús Torcal Laguna, Familia-medikua. Basauriko LMAU (Ezkerraldea-Enkarterri eskualdea).

Lankide adituak

Fernando Arós Borau, Kardiologoa. Txagorritxuko ospitalea.

Mónica Ausejo Segura, Laguntza farmazeutikoko zuzendariorde orokorra, Farmazia eta Produktu sanitarioen Zuzendaritza orokorra, Osasun eta Kontsumo Saila (Madrileko Komunitatea).

Julián Bajo García, Familia-medikua. Kuetoko LMAU (Ezkerraldea-Enkarterri eskualdea).

Alfonso Casi Casanellas, Familia-medikua. Lakua-Aranbizkarrako LMAU (Araba eskualdea).

Juan Antonio Divisón Garrote, Familia-medikua. Casas Ibáñez osasun-zentroa (Albazete).

Arritxu Etxeberria Agirre, Farmazialaria (Gipuzkoa Ekialde eskualdea).

Mariano de la Figuera von Wichman, Familia-medikua. CAP La Mina (Sant Adrià de Besós, Bartzelona).

Félix Miguel García, Familia-medikua. Lehen Mailako Arretako Kudeatzailletza, Valladolid Mendebaldea.

Ana Lourdes Iglesias, Familia-medikua. Larrialdietako Zerbitzua, San Eloy ospitalea (Bizkaia).

Jesús M^a Morán Barrios, Nefrologoa, Ikerketa eta irakaskuntza, Gurutzetako ospitalea (Bizkaia).

Blanca Novella Arribas, Familia-medikua. Farmazia eta Produktu sanitarioen Zuzendaritza orokorra, Osasun eta Kontsumo Saila (Madrileko Komunitatea).

Julián Ocharán, Nefrologoa, Txagorritxuko ospitalea.

Jose Antonio Quindimil, Familia-medikua. Kueto-Sestaoko LMAU (Ezkerraldea-Enkarterri eskualdea).

Ramón Saracho Rotaache, Nefrologoa, Galdakaoko ospitalea (Bizkaia).

Elkarte laguntzaileak

Gida honek OSATZEN, Familia eta Komunitateko Medikuntzaren Euskal Elkartearen, EUSTEN, Euskadiko Hipertentsio arterialari eta arrisku kardiobaskularrari buruzko elkartearen eta SOVASHTA, Hipertentsio eta arrisku kardiobaskularreko euskal elkartearen bermea dauka. Osatzen eta Eusten elkarteetako kideak aritu dira gida landu eta berrikusteko lanetan, eta Sovashtako kideak, berriz, gidaren berrikuspenean.

1. Sarrera

1.1 Gidaren justifikazioa

18 urtetik gorako biztanleriaren % 20 hipertentsotzat jo daitekeela uste da. Kalkulu desberdinen arabera gaixotasun koronarioak eragindako heriotzen % 42 eta gaixotasun zerebrobaskularren % 46,4% hipertentsio arterialak (HTAk) eragindakotzat jotzen dira.

Pertsona hipertentsoen arretan hobetzeko tarte asko dago oraindik ere. Praktika Klinikoaren Gidaren (PKG) aurreko bertsioak izandako hedapena, eta hura martxan jartzea bertan gomendatzen ziren estrategietako batzuk jarraituz egin zen hain zuzen ere: osasun-zentroetan aurkezteko saioak (70etik gora), batetik, posta bidezko hedapena eta baita elektronikoa ere, jardunaldi eta kongresuetan aurkeztea, postaz egindako gogorazpenak eta programa-kontratuak nahiz kudeaketa klinikoko programak lantzeko adierazleak sortzea. Gure erkidegoan antihipertentsiboak errezetatzeari buruz egindako ebaluazioek, ordea, aldaketa bat edo beste erakutsi dute PKGak egindako gomendioekin alderatuz gero.

Hipertentsio arterialaren eremuan etengabe argitaratzen dira ebidentzia berriak. Horrela, HTAri buruzko ondoz ondoko PKG nazionalak nahiz nazioartekoak ebidentzia berriekin eguneratzen dira; hala ere, aldaketak egon daitezke batzuen eta besteen gomendioen artean (1). Gida horiek erabilitako metodologia diferenteak azal ditzake alde horiek (1). Bide horretatik, behin PKG bat argitaratu eta hiru urteko epean eguneratu beharra dagoela onartzen da (2).

Arrazoi horiek guztiak bultzatu dituzte bai Osasun Saila eta baita Osakidetza bera ere, HTAri buruzko PKG eguneratzera, aurreneko bertsioa osatzeko erabili ziren printzipio metodologiko berak baliatuz.

1.2 Helburuak

Gida honen helburua pertsona hipertentsoaren osasun-arreta hobetzeko tresna izatea da lehen mailako arretaren eremuan betiere. Gida honen erabiltzaile nagusiak familiako medikuak eta lehen mailako erizainak dira, batetik, eta baita ospitalez kanpoko mailan pazienteak artatzen dituzten bestelako profesionalak ere: barne-medikuak, kardiologoak eta nefrologoak batez ere.

Gida hipertentso helduaren arretan zentratzen da. Ez ditu jorratzen haurren HTA, ezta haurdunaldiko HTA, eta ezta HTA sekundarioa esaten zaiona ere.

Gida egituratzeko Lehen Mailako Arretan paziente hipertentsoaren arretak planteatzen dituen 39 galderari erantzuna ematen saiatu gara.

1.3 Metodologia

1. eranskinean deskribatzen da xehetasun gehiagorekin atal hau. Eguneratzeko prozesuaren barruan txosten metodologiko bat osatu da, Ostebak argitaratu duena. Eguneratzeko metodoa kalitatezko PKGak hautatzean datza, AGREE izeneko tresnaren bidez. Hautatutako PKGak ondorengo hauek izan dira: NICE erakundearena (3), kanadiarra (4) eta britaniarra (5), eta horiek osatzen dituzte “oinarrizko” PKGak.

Ebidentziaren sailkapena eta gomendioen mailakatzea sistema misto batekin egin da: sistema horrek SIGN (Scottish Intercollegiate Guidelines Network) erakundearen proposamena erabiltzen du, batetik, galdera guztientzat, diagnostikoari buruzko galderentzat izan ezik, eta Oxford-eko ebidentzian oinarritutako medikuntza-zentroarena, bestetik, diagnostikoari buruzko galderentzat (1. eta 2. taulak).

Jarraitutako metodologia-sistemaren arabera, hautatutako oinarrizko PKGen gomendioak zuzenean egokitu eta moldatzen dira.

1.4 Gidaren erabilera

Dokumentu hau 2002. urtean argitaratutako jatorrizko gidaren eguneratzea da. Dokumentuaren irakurketa errazteko, kapitulu bakoitzaren hasieran jorratuko diren galdera berriak aurkeztu, eta aurrez emandako gomendioekiko aldaketa garrantzitsuren bat gertatu ote den adierazten da. Bada PKGaren bertsio oso bat, eranskin eta algoritmo guztiak jasotzen dituen; beste bertsio laburtu bat, gomendio guztiak dauzkana, eta horixe da klinikoak erabiltzeko tresna nagusia; eta, azkenik, baita bertsio azkar bat ere, informazioak irispidea erraztu asmoz prestatua. Gomendio berriak eta aurreko bertsioarekiko nabarmen aldatuak izan direnak  gezi batekin adierazten dira.

1. taula **Ebidentzia-mailak eta SIGN erakundearen gomendio-mailak**

EBIDENTZIA-MAILAK

- 1++** Kalitate altuko metaanalisiak, saiakuntza klinikoen berrikuspen sistematikoak edo kalitate altuko saiakuntza klinikoak, alborapen-arrisku oso txikiarekin.
- 1+** Ondo egindako metaanalisiak, saiakuntza klinikoen berrikuspen sistematikoak edo ondo egindako saiakuntza klinikoak, alborapen-arrisku txikiarekin.
- 1-** Metaanalisiak, saiakuntza klinikoen berrikuspen sistematikoak edo saiakuntza klinikoak alborapen-arrisku handiarekin.
- 2++** Kohorte-ikasketen edo kasu eta kontrolen kalitate altuko berrikuspen sistematikoak. Alborapen-arrisku oso txikia duten kohorte-ikasketak edo kasu eta kontrolenak, erlazio kausala ezartzeko probabilitate handia dutenak.
- 2+** Ondo egindako kohorte-ikasketak edo kasu eta kontrolen ikasketak, alborapen-arrisku txikiarekin eta erlazio kausala ezartzeko probabilitate moderatuarekin.
- 2 -** Kohorte-ikasketak edo kasu eta kontrolen ikasketak, alborapen-arrisku txikiarekin eta erlazioa kausala ez izateko arrisku esanguratsuekin.
- 3** Azterketa ez-analitikoak, adibidez kasuen txostenak eta kasuen serieak.
- 4** Adituen iritzia.

GOMENDIO-MAILAK

- A** Gutxienez 1++ bezala sailkatutako metaanalisi, berrikuspen sistematiko edo saiakuntza kliniko bat, gidaren xede-populazioari zuzenean aplikatu dakiokiena; edo 1+ bezala sailkatu eta elkarren artean sendotasun handikoak diren azterketek osatutako ebidentzia-bolumen jakin bat.
- B** 2++ bezala sailkatutako azterketek osatutako ebidentzia-bolumen jakin bat, zuzenean gidaren xede-populazioari aplikatu dakiokiena eta elkarren artean sendotasun handia dutenak; edo 1++ nahiz 1+ bezala sailkatutako azterketetatik estrapolatutako ebidentzia.
- C** 2+ bezala sailkatutako azterketek osatutako ebidentzia-bolumen jakin bat, zuzenean gidaren xede-populazioari aplikatu dakiokiena eta elkarren artean sendotasun handia dutenak; edo 2++ bezala sailkatutako azterketetatik estrapolatutako ebidentzia.
- D** 3 edo 4. mailako ebidentzia; edo 2+ bezala sailkatutako azterketetatik estrapolatutako ebidentzia.

Praktika kliniko egokia

- ✓¹ Gomendatutako praktika, esperientzia klinikoan eta idazketa-taldearen adostasunean oinarritutakoa

1. Zenbait kasutan, talde sortzailea nabarmendu beharreko alderdi praktikoko garrantzitsuen batez ohartzen da, horretarako apenas ebidentziarik dagoen arren. Normalean, ia inork zalantzan jarriko ez lukeen eta praktika kliniko egokitzat jo ohi den tratamenduaren alderdiren batekin lotua egon ohi da. Mezu hauek ez dira, inolaz ere ebidentzian oinarritutako gomendioen alternatiba moduko beste aukera bat; aitzitik, alderdi hori nabarmenarazteko beste modurik ez dagoenean bakarrik hartu behar lirateke kontuan.

2. taula **Ebidentzia-mailak eta gomendio-mailak diagnostiko-azterketak egiteko**

(The Oxford Centre for Evidence-based Medicine Levels of Evidence (2001) eta the Centre for Reviews and Dissemination Report Number 4 (2001) lanetatik egokitua)

EBIDENTZIA-MAILAK

EBIDENTZIA MOTA

Ia	Berrikuspen sistematikoa, 1. mailako azterketa-homogeneotasunarekin
Ib	1. mailako azterketak
II	2. mailako azterketak 2. mailako azterketen berrikuspen sistematikoa
III	3. mailako azterketak 3. mailako azterketen berrikuspen sistematikoa
IV	Adostasuna, adituen iritzia ageriko balorazio kritikorik gabe
1. mailako azterketak	Baldintzak: • Baliozko erreferentzia-proba batekiko ("urrezko patroia") konparazio maskaratua • Pazienteen espektro egokia
2. mailako azterketak	Ondorengo alborapenetatik bakarra bakarrik erakusten dute: • Populazio ez adierazgarria (laginak ez du proba aplikatuko den populazioa ordezkatzen) • Erreferentziakzko patroiarekiko ("urrezko patroia") konparazioa desegokia da (ebalatu beharreko probak urre patroian hartzen duelako parte) edo ebalatu beharreko probaren emaitzak eragina du urrezko patroia egiterakoan • Konparazio ez-maskaratua • Kasu kontrolen azterketak
3. mailako	2. mailako azterketetan deskribatutako bi irizpide edo gehiago izaten dituzte

Gomendioa	Ebidentzia
A	1a edo 1b
B	2
C	3
D	4

2. Paziente hipertentsoaren hasierako balorazioa

2.1 Hipertentsio arterialaren (HTA) baheketa (screening)

ERANTZUTEN GALTZERAK

- ▶ Eraginkorra al da HTAren baheketa morbiditate kardiobaskularra gutxitzeko?
- ▶ Zein da PA neurtzeko aldizkakotasunik onena biztanleria osasuntsuan?
- ▶ Zein da HTAren baheketa egiteko metodarik egokiena?
- ▶ Ba al da baheketa bertan behera uzteko adin-mugarik?

2007ko EGUNERATZEA

BS berria (6)

Adostasunen eta aditu-taldearen eguneratzea (7;8)

Aldaketarik ez gomendioetan

Baheketaren eraginkortasunari lotutako mesedeak antzemateko modurik onena pertsona hipertentsoetan egindako saiakuntza kliniko aleatorioetan (SKA) morbiditate kardiobaskularren prebentzioan izandako aurrerapausoak dira. Estrategia oportunistak, berriz, alegia lehen mailako kontsultara datozen pertsonen presio arteriala (PA) neurtzea, profesional ondo trebatuekin, eta pazienteentzat eta baita profesionalentzat ere landutako protokolo eta oroitzapeneko sistemekin batera da bereziki eraginkorra (9).

**SKAen
BS
1+**

PAren baheketarako tarterik onena zein den ez dago erabat finkatua. PAren neurketa, ohizko praktika klinikoan egiten den bezala (merkurioko esfigmomanometroarekin alegia) edo tresna elektroniko balidatuekin bestela, da oraindik ere baheketako probarik egokiena (7). PAren neurketa modu estandarizatuan egin behar da hala ere (10). Neurketarik fidagarrienak erizaintzako pertsonalak egindakoak dira, eta horregatik gure artean erizaina da lan horren ardura hartzeko pertsonarik egokiena (10).

**Adituen
iritzia
4**

Biztanleria orokorarentzat eremu kardiobaskularrean egiteko, ondoko baheketa-jarduerak adostu dira gure autonomia-erkidegoan:

- ▶ PA 2 urtean behin neurtzea.
- ▶ Arrisku koronarioa 4 urtean behin kalkulatzeko (PA, glukemia, kolesterol totala eta HDL barne).

Gomendioa	
B	Baheketa gomendatzen da HTAren estrategia oportunistak erabiliz. Beraz, PA klinikoa aldiro behin neurtzea komeni da.
D	PAPPS programak HTAren baheketari buruz emandako aholkuak jarraitzea gomendatzen da: 14 urte aurretik PA gutxienez behin hartzea; 4 edo 5 urtean behin 14 urtetik 40 urte bitartean, eta 2 urtean behin 40 urtetik aurrera, medikuari egindako noizbehinkako bisitak baliatuz.
✓	Osasun-zentroetan PAren neurketak erizainek egitea da onena.

2.2. HTAren definizioa eta sailkapena, PAren zifren eta arrisku kardiobaskularraren arabera

ERANTZUTEKO GALDERAK

- ▶ Zein dira pertsona bat hipertentsio bezala definitzen duten zifrak?
- ▶ Nola hautatzen dira arrisku kardiobaskularrik handiena duten hipertentsoak?

2007ko EGUNERATZEA

2 kohorte-azterketa (11;12) eta 2 BS berri (13;14)
Gomendio aldatua

PAren zifrek morbiditate kardiobaskularrarekin duten erlazioak baldintzatzen du pertsona bat hipertentsioz jotzea. Tratamendu farmakologikorik hartzen ez duten 18 urtetik gorako pertsonetan, HTA bezala jotzen da PA zifrak kontsultan etengabe altu egotea, 139 mm Hg-tik gora, hain zuzen ere PA sistolikoaren kasuan (PAS) eta 89 mm Hg-tik gora PA diastolikoaren kasuan (PAD) (10). PA altua daukan paziente baten aurrean HTA egiaztatu beharra dago, eta horretarako bisita bakoitzean bi neurketa egin behar dira gutxienez, beste bi bisita gehiagotan astebeteko tartearekin (nolatan PAS $\geq$ 180 mm Hg edo PAD $\geq$ 110 mm Hg ez diren, kasu horiek berehalako arreata eskatzen baitute). Hiru egunetako balioen batez bestekoak atera behar dira, eta HTA diagnostikatuko da batez

bestekoak aipatutako zifrak baino handiagoak badira. 2 eta 3. estadioetako pazienteetan (3. taula) bisiten kopuru eta maiztasun hori nahikoa da. 1. estadioan dauden pazienteetan, ordea, ondorengo 4 asteetan gutxienez bi kontsulta gehigarri egiteak, PAren neurketa guztiak kontuan hartuz, HTAren diagnostiko hobea egiteko aukera ematen du(10)

3. taula HTAren sailkapena mailatan, PAS eta PAD zifren arabera

Kategoria	PAS (mmHg)	eta/edo PAD (mmHg)
1. estadioa edo 1. maila	140 - 159	90 - 99
2. estadioa edo 2. maila	160 - 179	100 - 109
3. estadioa edo 3. maila	≥180	≥110

Hipertentsio sistoliko isolatua esaten zaio 140 mm Hg-ko edo hortik gorako presio sistolikoa eta 90 mm Hg-tik beherako presio diastolikoa duenari, eta bere PAS mailaren arabera aurretik deskribatutako estadioetan sailkatzen da.

Gauza jakina da paziente hipertentso batek konplikazio kardiobaskularren bat jasateko duen arriskua beste arrisku-faktore batzuk agertzearen edo xede-organoak erasatearen mendean dagoela.

2. eta 3. estadioetarako argi dago PAren zein zifretatik aurrera hasten den tratamendu farmakologikoa mesede kardiobaskularra egiten gaixoari, eta baita gaixotasun kardiobaskularra jadanik ezarria daukaten pazienteentzat ere (10).

1. estadioan arrisku kardiobaskular edo koronarioaren kalkulua eta xede-organoen erasana bi tresna baliagarri dira erabakiak hartzeko lehen mailako prebentzio kardiobaskularrean.

Baldin eta 1. mailako HTAn ezkerreko bentrikularen hipertrofia (EzBH), mikroalbuminuria, nahiz erretinopatia larria detektatuz gero, edo besoa/orkatila indizea < 0,9 baldin bada, tratamendu farmakologikoa gomendatzen da edozein dela ere arrisku kardiobaskularra, egoera horiek arrisku kardiobaskular handiagoarekin lotzen baitira (13-15).

**Kohorte-
ikerketen
BS
2+**

Arriskuaren ekuazioak iragarpen edo auresate klinikoko arauak dira (AKA), gertaera jakin bat —erikortasun edo morbillitate eta/edo hilkortasun edo mortalitate koronario edo kardiobaskular totala—, aldagai sail batekin (arrisku-faktoreekin) lotzen dutenak. Arrisku koronarioa arrisku kardiobaskularren estimatzaile edo iragarle egokia da (azken horren bi hereneko balioa duela kalkulatu da).

Framingham-eko jatorrizko ekuazioak (16) gainestimatu egiten du arrisku koronarioa jatorrizkoaz bestelako populazioetan, baita Espainian ere (17-19).

Kasu bakoitzean herrialde bakoitzeko patroia eta eredu epidemiologikoetara egokitutako arrisku KBeko taulak erabiltzea proposatzen dute oinarrizko gidek.

AKA
2+

Zentzu honetan REGICOR proiektuak gehiegizko estimazio hori konpontzeko alternatiba interesgarria eskaintzen du, Framingham taulak gure inguruko errealitate epidemiologikora egokitu eta balidatzea lortu baitu (17).

Esan beharra dago morbidimortalitatea gutxitzeko estrategia bezala arrisku kardiobaskularreko (KB) taulak erabiltzea eraginkorra dela frogatuko duen inolako ebidentziarik ez dagoela (20). Beraz, arrisku-taulek, egun eskura dauzkagun ebidentziekin, balio aski mugatua dute gaixotasun kardiobaskularrik gabeko pazienteetan erabakiak hartzen laguntzeko.

PKG honen idazketa-taldeak, aho bateko adostasunez, aipatu taula horien % 10eko maila hartu izan du ebaketa-puntutzat (21), eta maila horretatik aurrera tratamendu farmakologikoa martxan jartzea proposatzen da 1. mailako hipertentsoetan (14. eranskina). Arrisku txikiagoko pertsonetan, ordea, erabakia modu indibidualizatuan hartu beharra dago, pazientearen egoera globala kontuan hartuz eta baita ekuazioan sartzen ez diren arrisku kardiobaskularreko bestelako faktoreak ere (adibidez, gaixotasun kardiobaskular goiztiarraren aurrekari familiarak) (2. eranskina).

Adituen
iritzia
4

Gomendioa

2007

- D** Xede-organoen erasana dagoen kasuetan, edozein dela ere arrisku kardiobaskularra, 1. mailako HTAren tratamendu farmakologikoa gomendatzen da.
- C** Paziente hipertentsoen arrisku koronarioa kalkulatzeko REGICOR taulak erabiltzea gomendatzen da.
- D** REGICOR taularen arabera arrisku koronarioa $\geq$ % 10 den kasuetan, 1. mailako HTAren tratamendu farmakologikoa gomendatzen da.
- D** 1. mailako HTA eta arrisku koronarioa $<$ % 10 duten pazienteetan, tratamendu farmakologikoa bestelako arrisku-faktore gehigarrien arabera erabakiko da

2007

- D** 1. mailako HTA eta arrisku koronario baxua ($<$ % 10) duten pazienteak, bestelako arrisku-faktore gehigarriak ez badute, neurri ez farmakologikoekin tratatuko dira urtebetez, eta ondoren berriro baloratu beharko da tratamendu farmakologikoaren premia.

2.3. HTAren diagnostikoa

ERANTZUTEKO GALDERAK

- ▶ Zeintzuk dira HTA definitzen duten PAren balioak, PAMaren arabera?
- ▶ Zeintzuk dira HTA definitzen duten PAren balioak, PAANen arabera?
- ▶ Zein da etxean PAAN metodoarekin egin beharreko neurketen kopuru ideala?
- ▶ Baliagarria al da PAAN hipertentsio kliniko isolatuaren diagnostikoa?
- ▶ Zein da BZHren pronostikoa?
- ▶ BZH duten pazienteek tratamendu farmakologikoa hartu behar al dute?
- ▶ Zer sartu behar da paziente hipertentsoaren hasierako azterketan?
- ▶ Zein aparatu dira baliagarriak PAMA eta PAAN metodoetan erabiltzeko?

HTAren diagnostikoa kontsultan PA neurtzean datza (PA klinikoa) modu estandarizatu eta jakin batean (ikus 3. eranskina).

PA hartzeko unean osasuneko profesionalak edo eremu sanitarioak berak eragiten duen alerta-erreakzioari (22) esaten zaio bata zuriaren eragina (BZE), bata zuriaren fenomeno (BZF) edo baita hipertentsio kliniko isolatua edo bata zuriaren hipertentsioa (BZH) ere (10)

- ▶ **Bata zuriaren eragina (BZE):** PAren neurketari ekiten zaionean aurrean pertsonal sanitarioa egoteak eragiten duen PAren gorakada da.
- ▶ **Bata zuriaren fenomeno (BZF):** kontsultan eta etxean hartutako PA zifren artean PASren aldea 20 mm Hg baino handiagoa eta PADrena 10 mm Hg baino handiagoa denean gertatzen da.
- ▶ **Hipertentsio kliniko isolatua edo bata zuriaren hipertentsioa (BZH):** kasu honetan kontsultan HTA egoten da, eta PAMA edo PAANekin, berriz, normotentsioa.

PA neurtzerakoan gertatzen diren mugak murrizteko, badira behatzailearen alborapena gutxitu eta bata zuriaren eragina gainditzeko saiatzeko diren estrategiak.

PAren neurketak pazienteak berak edo horren senideak egiten dituztenean etxean bertan, etxean egindako PAren autoneurketaz (PAAN) hitz egiten da. Neurketak gailu automatizatuen bitartez egiten direnean, aurrez programatutako txanda edo tarteekin eta pertsonak bere eguneroko jardunarekin jarraituz, normalean 24 ordukoa izaten den epean, orduan presio arterialaren monitorizazio ambulatorioaz hitz egiten da (PAMA).

2.3.1. Presio arterialaren monitorizazio anbulatorioa (PAMA): balio normalak eta indikazioak

2007ko EGUNERATZEA

3 kohorte-ikerketa (23-25) berri
Gomendio osatua

Gure inguruan PAMA erabiltzeko gomendioen eguneratzea jasotzen du 4. taulak eta bertan HTA “mozorrotuan” ere erabiltzeko indikazioa gehitu da. Fenomeno hori PA kliniko normalak baina PAMArekin bidez zifra altuak dituzten pazienteei dagokie. Gertakaria morbiditate kardiobaskularraren gorakadarekin lotzen da (23-25) eta indikazio berri bat ikusi da hor PAMarentzat. Etxeko zifren eta zifra klinikoaren artean desberdintasunak antzematen direnean HTA mozorrotua susmatu behar da, eta baita xede-organoen erasana ikusten denean PArekin zifra kliniko normalak dituzten pazienteetan.

**Kohorte-
ikerketak
2+**

4. taula **PAMA erabiltzeko indikazioak**

2007

- ▶ Bata zuriaren fenomenoaren edota bata zuriaren HTArekin susmoa
- ▶ HTA mozorrotuaren susmoa
- ▶ Hipotentsioaren susmoa tratamendu farmakologikoa hartu duten pazienteetan
- ▶ Tratamendu farmakologikoarekiko erresistentea den hipertentsioa
- ▶ 24 ordutan zehar tratamendu farmakologikoaren eraginkortasuna neurtzeko gida bezala

PAk epealdi diferenteetan izan ohi dituen balio normalak 5. taulan erakusten dira eta PKGren aurreko bertsioak balio berak mantentzen dira bertan (10), baita “dipper” kontzeptua ere (gaueko PArekin % 10etik gorako jaitsiera), arrisku kardiobaskular handiagoarekin batera doana (10).

**Kohorte-
ikerketak
2+**

Neurketak esfigmomanometro automatiko eta oszilometriko elektronikoaren bidez egin behar dira, American Association for the Advancement of Medical Instrumentation (AAMI) eta/edo British Hypertension Society (BHS) elkartearen protokoloen arabera balidatuak. Gaur egun Hipertentsioaren Europako Elkartearen (ESH) protokoloa ere gehitu zaie aurrekoei (26) (ikus 4. eranskina).

**Adituen
iritzia
4**

5. taula HTA definitzeko PAREN zifrak (epealdiko batez bestekoak), PAMAREN arabera

PAREN NEURKETA	HTA
PAS mmHg	
Egunekoa	≥135
Gauekoa	≥120
24 h	≥135
PAD mmHg	
Egunekoa	≥85
Gauekoa	≥75
24 h	≥80

“Dipper” fenomenoak: PAREN gaueko zifrak jaitسي egiten dira ($\geq 10\%$), egunekoekin alderatuz gero

Gomendioa

- D** AAMI, BHS edo ESH elkarten nazioarteko arauen arabera modu independentean balidatutako tresnekin egin behar da PAMA.
- B** PAMA HTAREN diagnostikoan baliagarria gerta daitekeen metodoa da, neurri horren gorakada morbiditate kardiobaskularrarekin korrelazionatzen baita.
- B** Pertsona bat hipertentso bezala definitzen duten PAMA bidez neurtutako PAREN **24 orduko** batez besteko zifrak hauek dira: PAS ≥ 135 mm Hg eta PAD ≥ 80 mm Hg.
- D** Pertsona bat hipertentso bezala definitzen duten PAMA bidez neurtutako PAREN **eguneko** batez besteko zifrak hauek dira: PAS ≥ 135 mm Hg eta PAD ≥ 85 mm Hg.
- D** Pertsona bat hipertentso bezala definitzen duten PAMA bidez neurtutako PAREN **gaueko** batez besteko zifrak hauek dira: PAS ≥ 120 mm Hg eta PAD ≥ 75 mm Hg.

2.3.2. Presio arterialaren autoneurketa (PAAN): balio normalak eta indikazioak

2007ko EGUNERATZEA

BS berri bat (27)

Gomendio osatua (PAAN metodoa, PAre kontrola hobetzeko)

PAAN metodoak PAre balio ugari eskaintzen ditu, eta eguneroko bizi-baldintzetatik hurbilagoko testuinguruan gainera. Neurketa guztiak esfigmomanometro automatiko eta oszilometriko elektronikoko balidatuen bitartez egin behar dira (ikus 6. eranskina).

Horrez gain, PAAN bidez neurtutako PA hobeto korrelazionatzen da morbidmortalitate kardiobaskularrarekin kontsultan egindako neurketa baino (27). Paziente bat hipertentsotzat jotzeko proposatu izan diren balioak **PAS $\geq$ 135 mm Hg edo PAD $\geq$ 85 mm Hg** (21;10;28) ziren PKGren aurreko bertsioan (10). Balio horiek berak dira gai hau jorratzen duen oinarritzko PKG bakarrean gomendatzen direnak (28). Bada oraintsuko berrikuspen sistematiko bat (27), oinarritzko PKG bakar batek ere jaso gabea, puntu hori jorratzen duena. HTA definitzeko ezartzen dituen PAre mugak bat datoz aurrez adierazitako balioekin. Eta PAANen indikazioei dagokienez, PAre kontrol-maila gehitzeko teknika hau erabiltzeko aukera ere aipatzen da (ikus betetze-mailari buruzko atala aurrerago). Gomendio berri hau eta baita PKGaren aurreko bertsioak ere 6. taulan jasotzen dira.

**Zeharkako
ikerketen eta
kohorte-
ikerketen BS**

6. taula PAANen indikazioak

- ▶ Bata zuriaren fenomenoaren edota bata zuriaren hipertentsioaren susmoa
- ▶ Hipotentsioaren susmoa tratamendu farmakologikoa hartu duten pazienteetan
- ▶ Tratamenduarekiko loturaren hobekuntza eta PAre kontrola hautatutako pazienteetan
- ▶ Pazientearen PAre zifrak zorrotz kontrolatzeko premia

2007

Gomendioa

- | | |
|----------|---|
| B | AAMI, BHS edo ESH elkarteen nazioarteko arauen arabera modu independentean balidatutako tresnekin egin behar da PAAN. |
| B | PAAN HTAre diagnostikoan baliagarria gerta daitekeen metodoa da, teknika horren bidez lortutako balioak morbidmortalitate kardiobaskularrarekin korrelazionatzen baitira. |
| B | Paziente bat hipertentso bezala definitzen duten PAAN bidez neurtutako PAre zifrak hauek dira: PAS $\geq$ 135 mm Hg edo PAD $\geq$ 85 mm Hg. |

2.3.3. PAAN metodoarekin beharrezkoak diren PA neurketen kopurua

2007ko EGUNERATZEA

Galdera berria

Gida honetan kontuan hartu diren PAAN metodoari eta BZHaren diagnostikoari buruzko lanetan (29-31) PA neurtzeko eskema aldakorrak jarraitzen dira. Guztietan hiru neurketa erabiltzen dira, goizez eta gauez, hiru egunetan gutxienez, serieetako neurketa bakar bat ere galdu gabe eta astebete osoko eskemak edo bi astetan 3 lanegunetako eskemak erabiliz. Ez dago horien arteko inolako konparaziorik. Duela gutxi biztanleria orokorrean egindako ikerketa batean (32), eta paziente hipertentsoak hartuz barruan, zazpi eguneko epean egindako neurketa guztiak baliagarriak izan ziren.

Epe luzerako jarraipenean, kontuan hartutako lanek 5 laneguneko neurketak erabiltzen dituzte (ondoz ondoko hiru neurketa goizean eta gauean, neurketa guztiak kontabilizatuz) kontrol klinikora joan aurreko astean (33) edo aurreko asteko neurketen batez bestekoa bestela, asteburua ere barne hartuz (ondoz ondoko 2 neurketa goizean eta beste 2 gauean) (34). Ez dago, hala ere, proposatutako eskema diferenteak elkarren artean konparatzen dituen inolako ikerketarik. Azken finean, eta eskura daukagun ebidentzian oinarrituz, neurketen kopuru ideala zehaztuko lukeen behin betiko eskema bati buruzko proposamen finkorik ezin da egin oraindik. Diagnostiko-fasean egunen kopurua eta denbora-aldia gehitzen badira, litekeena da teknika erabiltzen hasi zen aurreneko eguneko alerta-erreakzioak PAAN metodoaren gaitasun diagnostikoaren gainean eraginik ez edukitzea.

**Zeharkako
ikerketak eta
kohorte-
ikerketak
2+/3**

Gomendioa

2007

D PAAN teknika helburu diagnostikoekin erabiltzen denean, eskema gisa PAREN autoneurketak gutxienez hiru egunetan egitea gomendatzen da, 12 orduz behin hiru neurketa eginez. Aurreneko eguneko zifrak kontuan har daitezke edo ez.

2007

D PAAN teknika paziente hipertentsoaren jarraipenean erabiltzen bada, eskema gisa PAREN autoneurketak gutxienez hiru egunetan egitea gomendatzen da, 12 orduz behin hiru neurketa eginez kontsultaren aurreko astean.

2.3.4. PAAN metodoa hipertentsio kliniko isolatuaren edo bata zuriko HTAren diagnostikoan

2007ko EGUNERATZEA

Proba diagnostikoen baliagarritasunari buruzko 3 ikerketa berri (29-31)
Gomendio aldatua


PKGren aurreko bertsioan PAAN teknika erabiltzea gomendatzen zen aurreneko aukera bezala BZHren diagnostikoan. Eta PAANen balioak normalak izanez gero, PAMA erabiltzea gomendatzen zen diagnostikoa baieztatzeko, lortutako ABPak (aurreate-balio positiboak) oso apalak baitziren (% 60koak besterik ez)(10). Proposamen horixe bera jasotzen da oinarrizko PKG gisa hautatutako PKG kanadarrean ere (28).

Proba diagnostikoen ikerketak I/II

PKG horrek THOP ikerketaren datuak aipatzen zituen (30); ikerketa horrek % 97,1eko ABN (aurreate-balio negatiboa) eta % 33,3ko ABP (aurreate-balio positiboa) lortu zituen. Hala ere, badira emaitza horiek nolabait kontraesanearan jartzen dituzten bi ikerketa (29;31). Azken ikerketa horien arabera, BZHren susmoa edukiz gero, PAMA bat egitea nahitaezkoa izango litzateke.

Beste alderdi interesgarri bat zera da, PAren ebaketa-puntu diferenteek duten gaitasun diagnostikoa (35), normalizat jotako PAS/PAD zifren 135/85 mugak hartu ordez. Katalunian egindako aipatu lan horietako batek ROC kurba bat osatzen du PAren balio diferenteentzako. Eta PAMArek muga moduan 145/95eko zifrak ezariz, ABN % 86,5koa izan zen. Horrek zera esan nahi du, beren PA muga horietatik gora daukaten pazienteetan BZH bazter zitekeela; eta talde horrek kasu guztien % 30 hartzen du.

1. irudia PAMA BZHren diagnostikoan



Gomendioa**2007****B**

BZH bat susmatuz PAAN metodoa erabiltzen denean, 145/95 mm Hg-tik gorako zifrak aurkitzea nahikoa da pertsona bat hipertentsotzat jotzeko, hortik azpiko zifrek PAMA egitea eskatzen duten bitartean.

2.3.5. Bata zuriko HTAren esanahi klinikoa**2007ko EGUNERATZEA****5 kohorte-ikerketa berri (25;36-39)****Aldaketarik ez gomendioan**

Hipertentsio kliniko isolatua edo bata zuriko HTA horrela definitzen da: kontsultan HTA eta PAMArekin normotentsioa dagoen egoera klinikoa. Paziente hipertentsoen % 20k gutxienez eduki dezakete egoera hori (40).

Eguneratzeak 5 erreferentzia berri sartzen ditu bere baitan (25;36-39). Morbilitate kardiobaskularraren, hilkortasun kardiobaskularraren eta hilkortasun orokorraren arteko konbinazio diferenteak ebaluatzen dituzte ikerketa guztiek. Eta guztietan, kohorte daniar batean izan ezik (39), morbmortalitatean ez da alderik ikusten paziente normotentsoen eta BZH dutenen artean.

**Kohorte-
ikerketak**
2+

Hala ere, gauza jakina da paziente kopuru aldakor batean BZHk eboluziona dezakeela HTA eutsi batera (10).

**Zeharkako
ikerketak**
3

Gomendioa**D**

BZHren jarraipenak neurri ez farmakologikoak eta arrisku kardiobaskularraren eta xede-organoen erasanaren aldizkako ebaluazioa hartu behar ditu barne.

C

HTA kliniko isolatua duten pazienteak kontsultan egindako PA neurketekin eta PAMA bidez kontrolatuko dira, behar izanez gero, HTA eutsira izan dezaketen eboluzio posiblea identifikatzeko.

2.4. Paziente hipertentsoaren hasierako azterketa

ERANTZUTEKO GALDERAK

- ▶ Zer sartu behar da paziente hipertentsoaren hasierako azterketan?
- ▶ Mikroalbuminuria desagerrarazi egin behar al da paziente hipertentsoetan?

Paziente hipertentsoaren hasierako ebaluazioak hainbat helburu dauzka:

- ▶ PAren igoera kronikoa baieztatu eta horren balioa neurtzea
- ▶ Gaixotasun hipertentsiboak xede-organoen gain dituen ondorioak ebaluatzea
- ▶ HTA sekundarioaren eta komorbiditatearen arrazoi posibleak antzematea
- ▶ Pazientearen arrisku kardiobaskular globala estimatzea
- ▶ Tratamendu farmakologikorik egokiena aukeratzea, behar izanez gero

**Adituen
iritzia**
4

Helburu horiek anamnesitik, miaketa fisikoaren ostean eta proba osagarriak egin ondoren lortzen dira..

7. taulan laburbiltzen dira paziente hipertentsoaren hasierako ebaluazioari buruzko gomendio batzuk, PKGren aurreko bertsioan oinarrituz.

7. taula Paziente hipertentsoaren hasierako ebaluazioa		
Paziente hipertentsoaren hasierako azterketa fisikoa		
Hasierako azterketa	Oharra	D mailako gomendioa gidan
Begi-hondoaren azterketa	Fidagarritasuna, doitasuna eta baliagarritasuna ez daude erabakiak	Gomendatua. Lehentasunezkoa paziente diabetikoan
GMIaren kalkulua	Jarraipenerako eta dieta hiposodikoa martxan jartzeko, behar badu	Gomendatua
Jugularren ingurgitazioa bolumen-gainkarga antzemateko	Fidagarria beste aurkikuntzekin konbinatuz gero	Gomendatua klinikak horrela iradokitzen badu
Bihotzaren auskultazioa, balbulopatia edo arritmia detektatzeko	Fidagarria	Gomendatua
Miaketa neurologikoa ezkutuko gaixotasun zerebrobaskularren bila	Baliagarritasuna ez da erabaki	Gomendatua klinikak horrela iradokitzen badu
Beheko gorputz-adarretako miaketa baskularra (azterketa fisikoa eta ITB †)	Baliagarria xede-organoen erasan-maila baloratzeko	Gomendatua († hautatutako pazienteak)

(jarraitu)

7. taula **Paziente hipertentsoaren hasierako ebaluazioa (Jarraipena)****Azterketa osagarriak**

Hasierako azterketa	Oharra	D mailako gomendioa gidan
Gernu-jalkina	Nefropatia baztertu HTA sekundarioaren kausa bezala	Gomendatua
Albumina/kreatinina zatidura	Morbilitate kardiobaskularrekin lotua Erabaki terapeutikoak hartzen lagun dezake	Gomendatua
Kreatinina	Baliagarria tratamendua aukeratzeko eta xede-organoetan lesioak detektatzeko	Gomendatua
Bularraldeko Rx	Ez da oso baliagarria kardiomegalia detektatzeko	Beste egoera asoziatu batek eskatzen duenean soilik
Ekokardiograma	Baliagarria EzBH eta bihotz-gutxiegitasuna ebaluatzeko	Gomendatua hautatutako pazienteetan*
EKG**	Etekin diagnostiko eskasa EzBH antzemateko (sentikortasun baxua). Balio du arrisku KBaren kasuan, eta erritmoaren asalduek antzemateko	Gomendatua
Azido urikoa	Baliagarria tratamendu batzuk hautatu eta monitorizatzeko	Gomendatua
Glukosa	Erlazio argia du arrisku kardiobaskularrekin	Gomendatua
Profil lipidikoa: kolesterola, HDL, LDL eta TGZ	Erlazio argia du arrisku kardiobaskularrekin	Gomendatua
Sodio plasmatikoa	Etekin diagnostiko eskasa HTA sekundarioa antzemateko. Baliagarria tratamendu batzuk monitorizatzeko	Gomendatua
Potasio plasmatikoa	Etekin diagnostiko eskasa HTA sekundarioa antzemateko. Baliagarria tratamendu batzuk monitorizatzeko	Gomendatua

* Disfuntzio bentrikularraren edo kardiopatia koronario asoziatuaren susmoa. EzBH egiaztatu.

** Ikus 8. taula.

8. taula **Ezker-bentrikuluko hipertrofiaren irizpide elektrokardiografikoen etekin diagnostikoa**

Metodoa	Deskribapena	Sentikortasuna	Espezifikotasuna
Cornell	♂ S V ₃ deribazioan+ R aVL > 28 mm ♀ S V ₃ deribazioan+ R aVL > 20 mm	% 30 - 60	% 80 - 90
Sokolow-Lyon	S V ₁ deribazioan+ R V ₅ deribazioan ≥ 35 mm		

Ez dago hasieran estrategia diagnostiko diferenteak erabiltzeak HTAren kontrol-mailan ezta hipertentsoaren morbidimortalitatean ere eraginik duela esateko inolako ebidentziarik. Baieztapen hori bera zabaldu daiteke ekokardiogramaren erabilerara ere. PKG kanadarra da bere indikazioak gehien zehazten dituenak, eta disfunzio benterikularreko susmoen edo kardiopatia koronario asoziatuaren kasuetara soilik mugatzen du, eta baita ezkerreko benterikuluaren hipertrofia baieztatzeke ere (28).

PKG

2.4.1. Mikroalbuminuria neurtzea paziente hipertentsoan

2007ko EGUNERATZEA

Galdera berria

Mikroalbuminuriak badu hilkortasun totalarekin eta morbidimortalitate kardiobaskularrarekin nolabaiteko erlazioa (lotura hori apala da, dena den) (41-47).

Ez da aurkitu mikroalbuminuriaren tratamenduak morbidimortalitate kardiobaskularra gutxitzen ote duen baloratzen duten inolako ikerketarik; paziente gutxiko eta jarraipen laburreko SKA batzuek bakarrik baloratzen dituzte hipertentsioaren kontrako farmakoak mikroalbuminuriaren murrizketan (41;48).

Kohorte-
ikasketak
2+/++

Gomendioa

2007

- D** Albumina/kreatinina zatidura neurtzea gomendatzen da I. estadiotan dauden pertsona hipertentsoetan.
- D** Ez da gomendatzen ekokardiograma egitea hipertentso guztietan hasierako azterketa bezala.
- D** Paziente hipertentsoaren hasierako azterketan ondorengoak sartzen dira: miaketa fisiko kardiobaskularra, analitika (hemograma, glukemia, kreatinina, sodioa, potasioa, kolesterol totala, triglizeridoak, HDL, LDL, gerneru-jalkina eta albumina/kreatinina zatidura), begi-hondoa eta EKG.

2.5. Jarraipenerako proposamena

2.5.1. Helburuko zifrak

HOT ikerketan oinarrituz (49), eta bertan 90 mm Hg, 85 mm Hg eta 80 mm Hg-tik beherako PAD zifrak lortzeko asmoarekin aleatorizatutako hiru taldeen artean ez zen inolako alderik ikusi morbidimortalitatean, PKGaren aurreko bertsioak PAS < 140 mm Hg eta PAD < 90 mm Hg-ko helburu-zifrak gomendatzen zituen. Evidentzia berririk ez dagoenez, gomendio horixe bera mantentzen da.

SKA
1+

Gomendioa

B

PAS < 140 mm Hg eta PAD < 90 mm Hg-ko zifrak gomendatzen dira paziente hipertentsoaren tratamenduaren helburu bezala.

2.5.2. Kontrolen aldizkakotasuna

3 edo 6 hilero egindako jarraipenak konparatzen dituen saiakuntza kliniko batek (50) ez du alderik aurkitzen gaizki kontrolatutako hipertentsoen portzentajea, ezta pazientearen gogobetetasunean ere. Nabarmenezko modukoa da ia % 60k euren etxeetan autokontrolatzen zutela PA. SKA honek sendotasuna ematen dio ondo kontrolatutako hipertentsoetan seihileko kontrolak egiteko gomendioari. Helburuko zifrak lortzeko zailtasuna, tratamendua ez dela betetzen susmatzeko arrazoiak edo gaixotasun interkurrenteren bat azalduz gero, jarraipena indibidualizatua izango da, eta bisitak maiztasun handiagoarekin egingo dira.

SKA
1+

Paziente hipertentsoarekin egindako kontsulten helburuak hauek dira: PAren zifra optimoak lortzea; xede-organoetan izandako ondorioak (XOL) baloratzea; tratamendua betetzen den ala ez gainbegiratzea, albo-ondorio posibleak detektatuz eta arrisku kardiobaskularra berriro baloratzuz. 9. eta 10. tauletan jasotzen dira erizaintzako eta medikuntzako kontsultetarako, hurrenez hurren, proposatzen diren jarduerak.

9. taula **Erizaintzako kontsultaren edukia**

Erizaintzako kontsulta (arrisku altuko kasuetan* hiru hilero; gainerako kasuetan sei hilero)

- ▶ PA, pisua, pultsua neurtu
- ▶ Ohitura kaltegarriak antzeman: tabakismoa, gatz, koipe edo alkohol gehiegi kontsumitzea, sedentarismoa
- ▶ Tratamendua gainbegiratzea (betetze-maila eta albo-ondorioak detektatzea)
- ▶ Osasun-heziketa (arrisku kardiobaskularren garrantzia eta ohitura osasungarriei buruzko aholkuak)

* Gaixotasun asoziatua (diabetesa, kardiopatia iskemikoa, etab.) eta xede-organoen erasana

10. taula Medikuntzako kontsultaren edukia

Urteroko mediku-kontsulta

- ▶ Miaketa kardiobaskularra
- ▶ Analitika:
 - Urtero: gluzemia, kreatinina, ioiak*, kolesterol totala, TGZ, HDL, albumina/kreatinina zatidura eta gernu-jalkina**
- ▶ EKG urtero aurrez asaldurik badago, eta 5 urtean behin gutxienez gainerako kasuetan
- ▶ Arrisku kardiobaskularra berriro baloratzea REGICOR taulen bidez
- ▶ Tratamenduaren egokitasuna berrikustea, dauden ebidentzien arabera

* Diuretikoekin, AEBlekin edo AHA II botikekin tratamenduan dauden pazienteentzat soilik

** Neurketarik usuen hiperlipemia edo nefropatia kasuetan

Gida hau idatzi duen taldeak maila espezializaturako adostu dituen kontsultako irizpideak Familia eta Komunitate Medikuntzako Kataluniako Elkartek eta Hipertentsioaren Espainiako Elkartek eta Hipertentsio Arterialaren kontrako borrokarako Espainiako Ligak emandako gomendioetan oinarritzen dira (10). (11. taula)

**Adituen
iritzia
4**

11. taula Arreta espezializatura bideratzeko irizpideak. Gomendio-maila: D.

- ▶ Arrazoi ez-farmakologikoko hipertentsio sekundarioaren ikerketa
- ▶ Giltzurruneko gutxiegitasun kronikoari edo giltzurruneko funtzioaren asaldurik esanguratsuei –esaterako hematuria eta proteinuria eutsia ($\geq 0,5$ g/egun)– lotutako HTA
- ▶ HTA errefraktarioa, behin BZH baztertu ondoren
- ▶ HTA haurdunaldian

Gomendioa

- | | |
|----------|--|
| B | Sei hilean behin hipertentsoei jarraipeneko bisita bat egitea gomendatzen da, behin helburuko zifrak lortu ondoren. |
| D | Euren arrisku kardiobaskularren arabera hautatutako paziente batzuetan, xede-organoen erasan-maila edo betetze-maila; hiru hilean behin egin daitezke. |

2.5.3. Betetze terapeutiko farmakologikoa**ERANTZUTEKO GALDERAK**

- Zein esku-hartze dira eraginkorrak lehen mailako arretan paziente hipertentsoen betetze-maila farmakologikoa hobetzeko?

2007ko EGUNERATZEA

**2 BS berri (51;52) eta BS eguneratua (53), kohorte-ikasketa berria (54)
Gomendio aldatua**

Betetze terapeutiko bezala ulertzen da pazienteak agindutako dosien % 80 eta % 110aren artean hartzen dituenean (55). Tratamendu farmakologikoa ez betetzea da PAren zifra egokiak lortzeko bidean porrot egiteko arrazoi nagusietako bat.

Bi Cochrane BSk (51) (52) erakusten duten bezala, dosia sinplifikatzea eta estrategia diferenteak konbinatzea izaten dira betetze-maila areagotzeko neurririk eraginkorrenak, baina PA zifren beherakadan dituzten eraginak ez dira hain erabakigarriak.

**SKAen
BS
1 +**

AEBetan 5.732 paziente hipertentsorekin egindako behaketa-ikerketa batek (54) erakutsi zuenez, farmakoak dosi finkoetan konprimatu bakar batean elkartzeak ematen duen betetze-maila hobe da osagai diferenteak aldi berean baina bakoitza bere aldetik hartuz baino.

**Kohorte-
ikerketa
2+**

Betetze-maila hobetzeko estrategia diferenteak aztertzen dituzten hainbat SKA argitaratu dira gure ingurunean, gehienez ere 6 hileko jarraipenarekin. Estrategia horien artean eraginkorrak suertatu dira taldeko saioak postazko indargarriarekin (56), heziketa edo elkarriketa motibazionala programatutako kontsultan. Mugikorretara mezuak bidaltzeko metodo oroigarria ez da eraginkorra izan eta helburu horretarako PAANen erabilerari buruz dauzkagun datuak ez dira batere osatuak. Gure artean egin ez zen eta 26 hilabete arteko jarraipenarekiko SKA barne hartzen duen metaanalisi batek dioenez, PAAN eraginkorra omen da PA zifren kontrolean (57).

**SKA
1 +**

Gomendioa

- | | |
|----------|--|
| A | Hipertentsioaren kontrako tratamendu farmakologikoa eguneko dosi bakarrean dosifikatu behar da, ahal den kasu guztietan. |
| B | Paziente hipertentsoak tratatzen dituzten osasuneko profesionalek estrategia diferenteak erabili behar dituzte elkarrekin konbinatuta, aholku labur soilak baino haratago betiere, tratamendu farmakologikoaren betetze-maila hobetzeko asmotan. |
| A | Dosifikazioko pautak sinplifikatzea gomendatzen da (dosiak murriztea, asoziatutako farmakoak konprimitu bakar batean elkartzea, etab.), hipertentsioaren kontrako tratamenduak betetzeko lana errazteko. |

2007

3. Paziente hipertentsoaren tratamendua

3.1. Neurri ez farmakologikoak HTAren tratamenduan

ERANTZUTEKO GALDERAK

- Eraginkorrak al dira bizitzeko estiloaren aldaketak paziente hipertentsoaren kontrolean?
- Paziente hipertentsoak neurri ez farmakologikoak betez gero, zein da PAS eta PAD zifretan lor daitekeen jaitsieraren maila?

Ez dago oraindik ere morbidmortalitate kardiobaskularrarari dagokionez HTAren tratamenduan neurri ez farmakologikoen eraginkortasunari buruzko ikerketarik.

Hala ere, beharrezkoa da gogoraraztea ezen PA zifren jaitsiera txikiak morbidmortalitate kardiobaskularraren murrizketa esanguratsuekin lotu izan direla kohorteen ikerketetan.

Bizi-estiloen aldaketei buruz aztertutako neurri guztiak pertsonal sanitarioaren gomendio eta aholkuetan oinarritzen dira, eta horietako batzuk denbora dezente eskaintzea eskatzen duen programa egituratu eta espezifiko baten barruan gainera. Lehen mailako arreta-taldeak, horiexei baitago bideratua gida hau azken finean, baloratu beharko dute proposatutako gomendioen bideragarritasuna. Erizaintzako langileek ezinbesteko papera jokatzen dute eremu honetan.

3.1.1. Gatz-kontsumoa

2007ko EGUNERATZEA

2 BS berri (58;59)

Aldaketarik ez gomendioetan

Gatzaren kontsumoa murrizteak PAS eta PAD zifren jaitsiera apala baina esanguratsua ekar dezake populazio hipertentsoaren baitan, oro har.

Aurreko PKG atera zenetik, bi Cochrane berrikuspen sistematiko argitaratu dira (58;59). He-ren berrikuspenak (58) gutxienez lau asteko iraupena duten ikerketak hartzen ditu eta horietan 2,74 mm Hg-ko batez besteko jaitsierak lortzen dira PAD zifretan (3,2-2,3) eta 4,97 mm Hg-koak PAS zifretan (5,8-4,2).

Jurgens-en berrikuspenak (59) berretsi egin ditu aurkikuntza horiek, PAS zifretan 4,18 mm Hg-ko jaitsierarekin (3,3-5,1) eta PAD zifretan, berriz, 2 mm Hg-koarekin (1,3-2,5).

Indarrean jarraitzen dute aurreko PKGan aipatutako hainbat ebidentziak: dieta hiposodikoak tratamendu farmakologikorik gabeko 45 urtetik gorakoetan duen eragin handiagoari buruzkoa, gatz-murrizketak epe luzeagoan (6 hilabete – 1 urte) duen eraginkortasunari buruzkoa, baita epe oraindik luzeagoan ere (3 urteraino) 60-80 urte bitarteko populazioan, eta esku-hartzearen eraginak ekar ditzakeen sentiberatasun diferentek direla medio gomendioa modu indibidualizatuan egitearen premiari buruzkoa ere.

Erizaintzako pertsonala da paziente hipertentsoei neurri hori betetzen laguntzeko egokiena. Ebaluatutako ikerketek heziketa-arioko estrategiak erabiltzen dituzte, banakoak nahiz taldekoak. Gure inguruan modu indibidualean egin daiteke (ikus 9. eranskina).

**SKAen
BS 1+**

Gomendioa

A

HTA esentziala duten pazienteek aholku profesionala jaso behar dute beren dietan sodio-edukia murrizteko. Aholku hori mantendu egin behar da baita dieta bihotz-osasungarria jarraitzen duten pazienteetan ere. Aholku hori bereziki garrantzitsua da 45 urtetik gorako populazioan.

3.1.2. Ariketa fisikoa

2007ko EGUNERATZEA

BS berria (60)

Gomendio partzialki aldatua

Intentsitate aerobikoko ariketa izan da gehien aztertu dena. Eskura dagoen ebidentziak iradokitzen duenez, PA zifren jaitsiera moderatua lortzen da. Ikerketa horiek, lau astetik urtebetera bitarteko iraupena dutenez, ez daude diseinatuak

**RS
de
ECA 1+**

morbimortalitate kardiobaskularren murrizketak frogatzeko. Intentsitate aerobikoko ariketak pazienteen ezaugarrietara egokitua egon behar du.

Hipertentsoak eta normotentsoak hartzen dituen BS berri batek (60), astean hiru bider egindako erresistentziako ariketak lau astean gutxienez duen eragina aztertzen du. Oro har 6 mm Hg-ko murrizketa esanguratsua lortzen da PAS zifretan eta 4,7 mm Hg-koa, berriz, PAD zifretan. Hipertentsoen azpitaldeari dagozkion datuak ez dira erabakigarriak.

Gomendioa

A	Paziente hipertentsoek euren ezaugarrietara egokitutako intentsitate aerobikoko ariketa fisikoa egiteari buruz aholkuak eta gomendioak jaso behar dituzte, esku-hartze egituratu bidez. Ariketa horien barruan, aste bakoitzean, gutxienez, 45-60 minutuko iraupena duten hiru saio sartu beharko lirateke.
----------	---

3.1.3. Pisua kontrola

2007ko EGUNERATZEA

BS berria (62) eta metaanlisi berria (63)

Aldaketarik ez gomendioan

Aurkitutako erreferentzia berriek (62;63) gida honen aurreko argitalpenarien inguruan egindako Cochrane berrikuspenaren konklusioak berresten dituzte. Saiakuntza indibidualak ez dira kalitate handikoak. Neurriaren eragina apala da PAren zifrei dagokienez. Kalkuluen arabera, % 4-8ko pisu-galera batek 3 mm Hg-tan murriztu ditzake PAS eta PAD. Ebaluatzen diren esku-hartzeak ondorengoak dira: dieta hipokalorikoa eta dietaren aldaketa kualitatiboak, esku-hartze programatu indibidualekin indartuak.

**SKAen
BS 1+**

Gomendioa

A	HTA esentziala duten pazienteek, baita botika antihipertentsiboak hartzen dituztenek ere, profesionalen aholkua jaso behar dute pisua jaisteko.
----------	---

3.1.4. Estresaren kontrola

2007ko EGUNERATZEA

BS berria (64) eta kohorte-ikasketa berria (65)

Aldaketarik ez gomendioan

Kontsultatutako oinarrizko PKGetan (3-5) apenas aipatzen den neurri hori, eta aipatzen denean onura edo mesedea nahiko marjinalizat jotzen da. Hori uler daiteke erabilitako neurriak (biofeedback, meditazioa eta bestelako teknika kognitibo-konduktualak) oso heterogeneoak eta argitaratutako ikerketa esperimentalak kalitate eskasekoak direlako.

SKA
1+

Gomendioa

B

Estresaren kontrola ez da gomendatzen neurri orokor bezala gure ingurunean HTAren tratamendurako.

3.1.5. Alkoholaren kontsumoa

2007ko EGUNERATZEA

2 kohorte-ikerketa berri (66;67)

Aldaketarik ez gomendioan

Paziente hipertentso edale moderatu/gehiegizkoetan (30-60 g/egun) alkoholaren kontsumoa murrizteak 3,9 mm Hg-ko jaitsiera dakar PAS zifretan (KT: 2,76-5,04) eta 2,41 mm Hg-koa, berriz, PAD zifretan (KT: 1,57-3,25)(10).

SKAen
BS
1+

SKA berriak paziente gutxiarekin egin dira, jarraipen laburrekin eta morbidimortalitatea ebaluatu gabe. Horregatik, egokitzen jo da alkoholaren kontsumoak gizonezko hipertentsoen hilkortasunean duen eragina aztertzen duten kohorte-ikerketa berriak sartzea (66;67). Emaizten arabera, alkoholaren kontsumo moderatuak eragin babeslea du hilkortasun orokorraren nahiz hilkortasun kardiobaskularraren gainean. Ez dago daturik, ordea, emakume hipertentsoetan.

Paziente hipertentsoan alkoholaren kontsumoa murrizteak dakartzan onurak eremu kardiobaskularra baino haratago doaz, eta horregatik atal honek lehentasun osoa du paziente hauen tratamenduan. Normalean, gidek 1-2 unitate/egun ez gainditzea gomendatzen dute emakumeetan, eta 2-3 unitate/egun gizonezkoetan. Alkohol-unitate batek zenbat gramo dituen ez dago, oraindik, erabat argi (8-12 g). Paziente hipertentsoari aholkatutako kontsumoak biztanleria orokorrari gomendatzen zaion berbera izan behar du; horrela, gure ingurunean PAPPSek 280 g/astetik beherako kontsumoa (28 UBE) gomendatzen du gizonezkoentzat eta 170 g/aste¹ (17 UBE) emakumeentzat (68)

Gomendioa

A

Gehiegizko edaleak diren hipertentsoek aholkuak hartu behar dituzte alkohol-kontsumoa murrizteko. Ahoratatutako alkohola gutxienez % 60an murriztea da helburua.

2007

B/D

Astean 17 unitate alkohol baino gutxiago kontsumitzen dituzten gizonezko hipertentso edaleek ez dute euren ohiturak aldatzeko premiarik, alkoholaren kontsumo moderatuak duen eragin bihotz-babesle posibleagatik (B). Muga hori asteko 11 unitatekoa izango da emakumeentzat (D).

3.1.6. Potasioaren kontsumoa

2007ko EGUNERATZEA

SKA berria (69) eta BS berria (70)

Aldaketarik ez gomendioan

Aurreko gidan PAren gain potasioan aberatsa den jan-neurriak zuen eragina ebaluatzen zuen aipatutako metaanalisiak ezagutzera emandako datuak berretsi dituzte argitalpen berriek. Eguneko 60-100 mmol-eko gehigarritan emandako potasioak PAren jaitsiera apala eragiten du biztanleria hipertentsoan. Eragina handiagoa da, era berean, gatzik gabeko dietarik egiten ez duten pazienteetan eta arraza beltzekoetan (70). Potasio gatz batetik bestera ez dirudi alde handiegirik dagoenik (69).

**SKAen
BS
1+**

¹ 1 unitate alkohol = 1 ardo-baso (100 ml) = 1 garagardo-kaña (200 ml) = whisky erdia (25 ml) = 8-10 g alkohol

Alkohol-gramoak zehazki kalkulatzeko = graduazioa x bolumena ml-tan x 0,79

Potasioaren ohizko kontsumoa dietan 2-4 g/egunekoa da. DASH ikerketan (71) ikusi ahal izan zenez, potasio askoko fruta eta barazkitan aberatsa den dieta batek nabarmen jaisten zituen PAren zifrak.

Potasio-gehigarrien erabilerak monitorizazioa eskatzen du eta hiperpotasemia ekar dezake, batez ere AEBlekin tratatuak izaten ari diren adineko pertsonetan, edo giltzurruneko gutxiegitasun hasiberria dutenetan (10); horregatik, berdura eta frutatan aberatsa den dieta bat kontsumitzea litzateke itxuraz aukerarik gomendagarriena.

Gomendioa

A

Potasio-eduki altuko fruta eta barazkitan aberatsa den dieta gomendatzen da hipertentsioa duten paziente guztietan. Potasio-gehigarriak, balorazio indibidualizatua egin ostean, gomendatzeko modukoak izan daitezke paziente batzuentzat.

3.1.7. Kaltzio eta magnesioaren kontsumoa

2007ko EGUNERATZEA

2 BS berri (72;73)

Gomendio aldatua (Magnesioa gehitzen da)

Kaltzioaren kontsumoari dagokionez, PKG honen aurreko bertsioaren ondorengo bi BSk (72;73) berretsi egin dute gomendio hori, kaltzio-gehigarriekin lortzen den PAS zifren murrizketa aski txikia den arren.

SKAen
BS
1+

Gomendioa

2007

A

Ez kaltzio-gehigarriak ezta magnesio gehigarriak ere ez dira gomendatzen modu orokorrean paziente hipertentsoetan.

3.1.8. Omega 3 gantz-azidoen kontsumoa**2007ko EGUNERATZEA****Galdera berria (74-77)**

Metaanalisi batek (74) eta kalitatearen aldetik aski aldakorrak diren zenbait saiakuntza klinikok (75-77) —horietako batzuk lehen mailako arretan eginak (75;77), eta guztietan omega 3 gantz-azidoa modu diferenteetan eman zen (pilulak, arraina, arrain-olioa, etab.)—, onura oso apala aurkitu zuten PA jaisteari dagokionez eta, horrez gain, jasanezintasun digestiboaren arriskuaz ere ohartarazten dute.

SKAen
BS
1+

Gomendioa**2007****B**

Paziente hipertentsoari bere dietan omega 3 gantz-azidotan aberatsak diren janariak sartzea gomenda dakioke, esaterako arrain urdina (3 aldiz astean).

3.1.9. Zuntz-kontsumoa**2007ko EGUNERATZEA****Galdera berria (78;79)**

Kontsultatutako PKGetatik (3-5) bakarrak ere ez du aipatzen galdera hori. Bilaketa bibliografikoan aurkitutako 2 metaanalisiak (78;79), biztanleria orokorrekoak dira, alde zuzeneko ezarritako hipertentsoen azpitaldea berariaz aztertzen duten arren. Ebidentzia ahula da, esku-hartzeak oso aldakorrak baitira, ez baita bertan sartutako saiakuntzen kalitatea ebaluatzen ezta horien heterogeneotasuna baloratzen ere.

SKAen
BS
1+

Gomendioa**2007****B**

Dietan zuntza kontsumitzea gomendatzen da, biztanleria orokorraren kasuan bezala

3.1.10. Kafearen kontsumoa

2007ko EGUNERATZEA

Galdera berria (80)

Biztanleria normo edo hipertentsoan egindako berrikuspen sistematiko batek (80) kafearen edo kafeinaren kontsumoak PAn eta bihotz-maiztasunean duen eragina alderatzen du kafeinagabearen edo kontsumorik ezaren aldean. Emaitez erakusten dutenez, PAS zifrek 2,04 mm Hg egiten dute gora (KT: % 95 1,18-2,99), PAD zifrek, aldiz, 0,73 mm Hg gora (KT: % 95 0,14-1,31) eta aldea ez da esanguratsua bihotz-maiztasunari dagokionez.

**SKAen
BS
1+**

PAren gaineko eragina nabarmenagoa da, kafeina kafea ez bestelako modu batean kontsumitzen bada. Aipatu kohorte-ikasketek ez dute kafea hilkortasun kardiobaskular handiagoarekin lotzen.

Gomendioa

2007

B

Ez dago zertan kendu kafea hipertentsoen dietatik, egunean bost katilukada baino gehiago kontsumitzeak soilik izan dezake eraginik PAren gain.

3.1.11. Bizimodu-estiloaren aldaketak: hainbat neurri ez-farmakologikoren konbinazioa

2007ko EGUNERATZEA

Galdera berria

Konbinazio diferenteak hain dira aldakorrak, ezen oso zaila baita horiek elkar konparatzea ondorio sendo bat ateratzeko, baina datuek iradokitzen dutenez, hainbat neurriren konbinazioak ez dauka neurri bakoitzak bere aldetik izango lukeen eraginaren baturaren balio bera. Eta hori planteatutako esku-hartzeak betetzeak daukan zailtasunagatik izango da seguruenik (81-85). Esku-hartze horietako batzuk, psikoterapeutak eskatzen dituztenak esaterako, ez dira, inondik inora, gurea bezalako lehen mailako arretako antolamendu batean aplikatzeko modukoak.

**SKAen
BS
1++**

Gomendioa**2007**

A Neurri ez-farmakologikoen konbinazioa eraginkorra da PA zifrak jaisteko.

2007

D Neurri horiek guztiak betetzea aski zaila denez, horietako bakoitza indibidualki proposatu behar da.

3.1.12. Heziketa edo antolamendu mailako esku-hartzeak**2007ko EGUNERATZEA****Galdera berria (86)**

Cochrane berrikuspen batek (86) frogatzen du bere baitan detekzioa, jarraipena, tratamenduko algoritmoa, betetze-mailaren kontrola eta zerbitzuetara iristeko erraztasuna hartuko lituzkeen antolamendu-mailako esku-hartze batek modu esanguratsuan murrizten duela PA (11,7 mm Hg-raino PAS zifrak eta 7,6 mm Hg-raino PAD zifrak) eta edozein kausagatiko heriotza-tasak ere behera egiten duela (arriskuaren diferentzia absolutua % 1,4koa izateraino).

RS
de ECA
1++

Erizaintzako edo farmaziako profesionalek emandako zainketekin, emaitzak aski heterogeneoak izan arren, emaitza faboragarriak lortzen dira kasurik gehienetan. Oroitzapen-ekintzak hobekuntzak dakartzate jarraipenean.

Emaitzarik garrantzitsuenak eremu askotxotan esku hartzea eskatzen du, beraz ez dirudi batere erraza horrelako prozedura bat praktikara eramatea.

Emaitza guztiek iradokitzen dutenez, heziketa mailako esku-hartzeak egitea eta paziente bera bere zainketetan inplikatzeko komenigarria dela esango genuke. Baina horietako zein esku-hartze den eraginkorragoa esateko adina ebidentziarik ez dago.

Gomendioa**2007**

A Paziente hipertentsoen arreta antolatua gomendatzen da, neurri horiez gain heziketa-mailako eta norberaren zainketa sustatzeko esku-hartzeak ere bultzatuz.

3.2. HTAren tratamendu farmakologikoa gaixotasun asoziaturik gabeko pazienteetan

ERANTZUTEN GALDERAK

- ▶ Zeintzuk dira HTAren tratamendu farmakologikoaren onura eta mesedeak gaixotasun asoziaturik gabeko pazienteentzat?
- ▶ Zeintzuk dira lehenengo aukera gisa erabilitako farmako diferenteen onura eta mesedeak gaixotasun asoziaturik gabeko pazienteentzat?
- ▶ Ba al da alderik eraginkortasunean, morbiditatean eta segurtasunean antihipertentsibo-talde diferenteen artean?
- ▶ Zein edo zeintzuk dira aukerako antihipertentsiboak patologia asoziaturik gabeko hipertentsoetan?

2007ko EGUNERATZEA

2 metaanalisi berri (87;88)

Aldaketarik ez gomendioetan

HTAren tratamendu farmakologikoak morbiditate kardiobaskularra murriztu egiten duela argi eta garbi frogatua geratu da gaixoak plazeboaren aurrez aurre modu ausazkoan esleituz egindako saiakuntza kliniko ugariaren bidez (SKA), hainbat metaanalisan jaso izan den bezala (10;87;88)

Tratamenduaren onura sendoa da heldu gazte eta adineko pertsonetan, gizonezko nahiz emakumeetan eta baita HTA sistoliko isolatuan ere. Hipertentsioaren kontrako tratamenduaren onura handiagoa da 1. eta 2. estadioetako HTA duten adinekoetan heldu gazteetan baino.

**SKAen
BS
1++**

Ez dirudi hipertentsioaren kontrako tratamenduaren onuran sexuak alderik eragiten duenik, oinarrizko arrisku kardiobaskularrak eragiten baitu, hain zuzen ere, onuraren tamaina edo neurria. 30 eta 54 urte bitarteko arraza zuriko emakumeetan ez da morbiditate kardiobaskularraren murrizketarik antzeman tratamendua hasi eta 5 urtera, oinarrizko arrisku KB apala zelako seguruenik, eta horrek diferentzia estatistikoki esanguratsuak aurkitzea zaildu egiten du (10).

Gomendioa

A	Hipertentsioaren tratamendua gomendatzen da, edozein dela ere pazientearen sexua. Adinari dagokionez, adostasuna agertzen da adituen artean, bai gazteak eta baita 80 urtetik beherako helduak ere tratatzeko.
----------	--

3.2.1. Diuretikoak

2007ko EGUNERATZEA

Metaanalisi berria (87)
Aldaketarik ez gomendioetan

Diuretikoak vs. betablokeatzaileak (BB)

Gidaren aurreko bertsioaren arabera, 65-74 urteko hipertentsoetan diuretikoak betablokeatzaileak baino apur bat eraginkorragoak izan ziren IZBen eta gertakari kardiobaskularren murrizketan; alde hori ez zen ikusi, ordea, 65 urtez azpikoetan (10).

Cochrane BS batek (89) zera ateratzen du, ondorio gisa: BBek eta diuretikoek oso antzeko eraginak dituztela ebaluatutako emaitza guztietan, konparazioaren batean edo bestean heterogeneotasuna ikusi izan den arren, pazienten adinari edo BB motari begira uler daitekeena

**SKAen
BS
1+**

Diuretikoak vs. beste antihipertentsibo familia batzuk

ALLHAT ikerketak (90) erakusten du klortalidonak eragin handiagoa duela hilkortasun kardiobaskularren prebentzian, amlodipino eta lisinopril-ekin alderatuz gero. Beste metaanalisi batean (87), diuretikoek kaltzioaren antagonistek baino profil hobea erakusten dute bihotz-gutxiegitasunean, eta horrek ALLHAT ikerketaren emaitzak berresten ditu.

**SKA
1++**

Eraginkortasunari buruzko ebidentziak sendoa dirudi diuretiko tiazidiko desberdinen artean, eta horrek iradokitzen du badela klase efektu bat.

**SKAen BS
ECA 1+**

Gomendioa

A	HTA ez konplikatuaren hasierako tratamenduan, diuretiko tiazidikoak, dosi baxuetan, lehenengo aukerako farmakoak dira antihipertentsiboen gainerako familien (AEBlen, AHA II eta kaltzio-antagonisten) aurretik, bai hipertentso gazteetan eta baita adinean aurrera doazenetan eta HTA sistoliko isolatuan ere. Aukerakoak dira, halaber, bestelako arrisku-faktore gehigarri bati lotutako 1. eta 2. estadioetako hipertentsioaren hasierako tratamenduan.
----------	--

3.2.2. Betablokeatzaileak

2007ko EGUNERATZEA

5 metaanlisi berri (87;89;91-93) eta SKA berria (94)
Gomendio aldatua

Aurreko bertsioan betablokeatzaileak aurreneko aukerako botikatzat hartu ziren HTA ez konplikatu duten hipertentsio gazteetan eta baita adineko pertsonetan ere, farmako alternatibo gisa edo asoziazioan bestela. Egindako bilaketan gomendio horiek aldatzera eraman gaituzten ebidentzia berriak aurkitu dira.

Betablokeatzailea vs. plazeboa

Gidaren aurreko bertsioaren arabera, betablokeatzaileek murriztu egiten dute IZBaren eta bihotzeko gutxiegitasunaren intzidentzia (10).

Beste metaanlisi batean (92), berriz, emaitza nagusi bezala aztertutako aldagai erantsia (MIA, IZB edo heriotza) 60 urtetik beherakoetan bakarrik agertzen da modu nabarmenean BBen aldeko. Cochrane BS batek (89), azkenik, argiago frogatzen du BBak mesedegarriak direla plazeboaren aurrean IZB kasuetan (heriotza dakartenak nahiz ez) eta baita GKB totalean ere (eta IZB atal horren barruan sartzen da), gainerako emaitzentzat alderik erakutsi gabe.

**SKAen
BS
1+/1++**

Betablokeatzailea vs. beste antihipertentsibo familia batzuk

Hiru metaanalisik (87;92;93) eta Cochrane BS batek (89) antihipertentsiboen gainerako familiak vs. BBak bilduz aurkezten dituzte euren emaitzak; betablokeatzaileak ez dira baloratutako emaitzetatik bakarrean ere gainerako familiak baino hobeak bezala agertzen eta, edonola izanik ere, kontrako profila dute IZBari dagokionez (93).

**SKAen
BS
1+**

Amlodipino perindoprilorekin edo gabe vs. atenolol tiazidekin edo gabe konparatzen dituen ASCOT ikerketan ere (94), ez da diferentzia esanguratsurik aurkitu emaitza nagusi bezala aztertutako aldagai erantsiari dagokionez (MIA ez-hilgarria, gaixotasun koronario hilgarria).

**SKA
1++**

Gomendioa

2007

A

Ez da gomendatzen betablokeatzaileak aurreneko aukerako farmako gisa erabiltzea HTA ez konplikatuaren hasierako tratamenduan.

3.2.3. AEBlak

2007ko EGUNERATZEA

5 metaanalisi berri (87;88;95-97)

Aldaketarik ez gomendioan

AEBlak vs. tratamendu konbentzionala: diuretikoak / betablokeatzaileak

Metaanalisi batek (97) ondorio bezala ateratzen du ez dagoela diferentzia esanguratsurik AEBlakiko tratamenduaren eta diuretiko eta/edo betablokeatzaileekin egindako tratamendu konbentzionalaren artean.

SKAen
BS
1++

Aldiz, beste metaanalisi batek (87) dio diuretikoak eraginkorrak direla AEBlak baino IZBean eta bihotzeko gutxiegitasunean. Azkenik, antihipertentsibo zaharrak eta berriak konparatzen dituen beste metaanalisi batek (88), aurkitu du tratamendu konbentzionala AEBlak baino hobea dela IZBaren prebentzioan; gainerako gertakari kardiobaskularretan aldeak ez dira esanguratsuak.

AEBlak vs. kaltzioaren antagonistak

2002ko gidaren arabera AEBlak kaltzio-antagonistek baino emaitza hobeak zituzten kardiopatia iskemikoaren prebentzioan (10), baina aurkikuntza hori ez da berresten saiakuntza berriak, eta horien artean ALLHAT ikerketa, barne hartzen dituen 2003. urtean argitaratutako beste metaanalisi batean (97). Aipatu metaanalisi horretan, AEBlak antzeko emaitzak lortzen dituzte aldagai honetan okerragoak IZBean eta hobeak bihotz-gutxiegitasunaren prebentzioan.

SKAen
BS
1++

Gomendioa

B

AEBlak erabil daitezke diuretikoaren farmako alternatibo moduan HTA ez konplikaturik duten hipertentsoetan, eta giltzurruneko arteriaren estenosirik ez badago betiere.

3.2.4. Kaltzioaren antagonistak

2007ko EGUNERATZEA

4 metaanlisi berri (87;88;97;98) eta 2 SKA berri (94;99)
Gomendio aldatua

Kaltzioaren antagonistak vs. tratamendu konbentzionala: diuretikoak eta/edo betablokeatzaileak

2002ko gidaz osteko hiru metaanlisi (87;88;97) bat datoz kaltzioaren antagonistak tratamendu konbentzionala baino okerragoak direla esatean eta, batez ere, diuretikoak baino okerragoak bihotzeko gutxiegitasunaren prebentzioan, baina ez dute inolako diferentziarik aurkitzen kardiopatia iskemikoari dagokionez.

**SKAen
BS
1+**

ASCOT ikerketak (94) amlodipinoa perindoprilarekin edo gabe, batetik, vs. atenolol bendroflumetiazidarekin edo gabe, bestetik, alderatzen ditu eta ez du alde esanguratsurik aurkitzen MIA ez-hilgarriaren emaitza erantsian, horren barruan sartuz isileko infartua eta baita gaixotasun koronario hilgarria ere. Aldagai sekundario guztietan, amlodipinoaren adarra eraginkorragoa izan zen atenololarena baino IZBaren prebentzioan.

Kaltzioaren antagonistak vs. AEBlak

Kaltzioaren antagonistak AEBlak baino eraginkorragoak dira IZBaren prebentzioan, baina ez hain eraginkorrak, aldiz, bihotz-gutxiegitasunean (97) (ikus AEBlai eskainitako atala).

**SKAen
BS
1+**

Kaltzioaren antagonistak vs. AHA II

50 urtetik gorako arrisku altuko hipertentsoetan (horietatik % 50ek kardiopatia iskemikoa daukate), amlodipino eta valsartan alderatzen dituen VALUE ikerketak (99), emaitza hobeak erakusten ditu lehenengo botikarentzat infartuen prebentzioan (aldagai sekundarioa), baina emaitza nagusian (bihotzeko gertakari hilgarria edo ez), ordea, ez dago alderik botika horien artean (Ikus AHA II botikei eskainitako atala).

**SKA
1+**

Gomendioa

- | | |
|----------|---|
| A | Dihidropiridinak diuretiko tiazidikoen alternatiba eraginkorra dira HTA sistoliko isolatuaren tratamendurako 60 urtetik gorakoetan. |
| B | Kaltzioaren antagonistak izan daitezke diuretikoen tratamendu alternatiboa hipertentsio ez konplikatuan. |



3.2.5. Alfablokeatzaileak**2007ko EGUNERATZEA**

**Ez dago inolako erreferentzia berririk
Aldaketarik ez gomendioan**

Ez da arazo honi buruzko ikerketa berririk argitaratu. Gutxienez arrisku-faktore bat zuten pazienteetan doxazosina eta klortalidona aurrez aurre alderatzen zituen ALLHAT ikerketaren adarra garaia baino lehen utzi zuten bertan behera, gaixotasun kardiobaskular gehiegitzo agertzen zirelako pazienteen artean, eta aldi berean bihotzeko gutxiegitasun kongestiboa izateko arriskua bikoiztu egin zelako (10).

**SKA
1++**

Gomendioa**A**

Alfablokeatzaileak ez dira gomendatzen lehenengo aukerako tratamendu gisa monoterapiari.

B

Eta alfablokeatzaileak asoziazioan erabiltzeko aukera botiken gainerako konbinazioek porrot egin duten kasuetarako soilik gorde behar litzateke.

3.2.6. AHA II**2007ko EGUNERATZEA**

**11 metaanalisi berri (87;88;95-97;100-105) eta 4 SKA berri (106-108)
Aldaketarik ez gomendioan**

Hainbat metaanalisisik (101;102), farmako antihipertentsibo diferenteak konparatzen dituzte, eta, horien artean, AHA II botikak. Metaanalisi guztiek ez dituzte ikerketa berak hartzen, horietako bakar bat ere ez da egiten hipertentsio ez konplikatuan eta batzuk, gainera, HTAz bestelako egoera klinikoetan planteatuak daude. Horrek guztiak asko zailtzen du galdera honetarako konklusio baliagarriak lortzeko lana.

**SKAen
BS
1+**

AHA II vs. plazeboa

Adineko pertsonetan (batez besteko adina: 76 urte) kandesartanek plazeboaren aurrean duen eragina aztertzen duen SCOPE ikerketak (106) ez du alde esanguratsurik aurkitzen lehen gertakari kardiobaskularraren portzentaje edo ehunekoari dagokionez (% 9,7 vs. % 10,9). Eta arrazoi etikoak direla medio, talde kontroleko pazienteen ia % 80k diuretikoak eta/edo betablokeatzaileak hartzen zituzten ikerketaren amaieran.

SKA
1+

AHA II vs. terapia konbentzionala: diuretikoak / betablokeatzaileak

Bi metaanalisi (88;97) bat datoz, IZBaren prebentzioan AHA II botikak terapia konbentzionala baino eraginkorragoak direla esateko orduan, baina ez dago alderik kardiopatia iskemikoan eta heriotza kardiobaskularrean.

HTA ez konplikatua duten pazienteetan AHA II eta diuretikoak alderatzen dituen ikerketarik ez dago. AHA II botikak egoera berezietan erabiliz egindako 3 saiakuntza barne hartzen dituen metaanalisi batek (87) zera dio ondorio moduan, zeharkako konparazioen bidez, botika-talde hori ez dela diuretikoak baino hobea gertakari kardiobaskularrak gutxitzeko orduan.

SKAen
BS
1+

Eta BBekiko konparazioari dagokionez, LIFE ikerketak losartan eta atenolol alderatu zituen aurrez aurre, arrisku kardiobaskular altua eta EKG bidez neurtutako ezker-bentrikuluko hipertrofia zuten 55 eta 80 urte bitarteko hipertentsoetan. Losartan atenolol baino hobea izan zen IZBaren murrizketan (109); baina ez zen diferentziarik sumatu hilkortasun kardiobaskularrean.

SKA
1+

AHA II vs. kaltzioaren antagonistak

50 urtetik gorako arrisku altuko hipertentsoetan (horietatik ia % 50ek kardiopatia iskemikoa zeukaten), amlodipino eta valsartan alderatu zituen VALUE ikerketak (99). Ez zen alde esanguratsurik aurkitu emaitza nagusian (bihotzeko gertaera hilgarria edo ez), baina infartuak nabarmen usuagoak izan ziren valsartan botikari esleitutako taldean.

SKA
1+

AHA II vs. AEBlak

Orain artean bi botika-familia horien arteko konparaziozko datuak eskaintzen zituen metaanalisi bakarrak (101) 5 SKA hartzen ditu bere baitan, beste hainbat egoera klinikotan eginak, eta ez du diferentzia esanguratsurik aurkitzen ez hilkortasun totalen, ez hilkortasun kardiobaskularrean ezta ez-kardiobaskularrean, edo IZB edo MIA aldagaietan ere.

SKAen
BS
1+

Duela gutxi argitaratu da ONTARGET izeneko SKA (110). Ikerketa horrek AHA II eta AEBl botikak konparatzen ditu prebentzio sekundarioan eta diabetesean dauden pazienteetan; horietatik gehientsuenak hipertentsioak. Ez zen alde handirik ikusi morbiditatean. Horrela, AHA II botikek ez zuten eta angioedema gutxiago sorrarazi zuten, baina baita hipotentsio gehiago ere.

ECA
1++

MIA agertzearekin duten erlazioa

VALUE ikerketan ikusitako datuetatik abiatuz, ondoren hainbat metaanalisis (100;101;103-105) aztertu dute gai hau, AHA II botikak plazeboaren aurrean edo bestelako tratamenduen aurrean konparatu dituzten saiakuntza desberdinetako infartu-kasuak kontuan hartuz. Eraitza horiek interpretatzea zaila da, ikerketa horietan sartutako SKAk, eta baita biztanleria edo konparatzaileak berak ere oso aldakorrak direrlako.

SKAen
BS
1+

ONTARGET ikerketan ez da infartuen maiztasun handiagorik ikusi AHA II botikekin.

SKA
1++

Gomendioa

2007

B

AHA II botikak ez dira aurreneko aukerako taldea HTA ez konplikatuan, AEBlen alternatiba gisa erabil daitezkeen arren, intolerantzia edo jasanezintasun-kasuetan.

3.2.7. Tratamendua bertan behera uztea albo-ondorioengatik

2007ko EGUNERATZEA

3 BS berri (89;111;112)

Gomendio aldatua (zabaldua)

Cochrane BS batek (89) aurkitu du ezen albo-ondorioak direla-eta tratamendua bertan behera uzten duten pazienteak gehiago direla BBen kasuan diuretikoek eta AEBl/AHA II botiken kasuan baino, eta kaltzioaren antagonistekin ez dagoela alderik. Beste BS baten arabera (112), berriz, ez dirudi diferentzia esanguratsurik dagoenik albo-ondorio larriei dagokienez kaltzio-antagonisten eta BB/diuretikoek artean, eta azken hauek hobeto jasaten direla kaltzioaren antagonistak baino. AHA II botikak AEBlak baino hobeto jasaten dira; eta AEBlak, euren aldetik, alfablokeatzaileak baino hobeto (10).

Beste BS batek (111) dosiaren murrizketa (erdia, estandarra, bikoitza) albo-ondorioekin alderatzen du 354 SKAetan eta berrikuspen horren arabera, diuretikoek, BBen eta kaltzio-antagonisten kasuan erlazio argia dago 2 aldagai horien artean, baina ez, ordea, AEBlen eta AHA IIen kasuan. Dosi-erdiarekin, PAre jaitciera txikiagoa lortzen da (% 20 gutxiago), baina albo-ondorioak ere nabarmen murrizten dira diuretikoek, BBen eta kaltzio-antagonisten kasuan. Tratamenduak konbinatzen direnean, albo-ondorioen proportzioa botikak elkartzeagatik espero zena baino txikiagoa izan zen (% 7,5koa, espero zitekeen % 10,4aren aldean).

**SKAen
BSECA
1+/1++**

Hala ere, zenbait alderdi eztabaidan daude oraindik: diuretikoek erabilerak eragindako hipergluzemiak morbiditate KBaren gorakadarekin duen erlazioa, batetik, edo AHA II botikek MIAre intzidentzia gehitu zezaketela dioden hipotesiak ekarri duena, bestetik. ALLHAT eta SHEP saiakuntza klinikoek post-hoc analisiek (113;114) diabetes-kasu berrien gorakada berresten dute diuretikoekin, baina horrek ez dakar ezinbestean gertakari KBak izateko arriskuaren gehikuntza.

Gomendioa

- | | |
|----------|---|
| B | Antihipertentsiboa aukeratzeko unean albo-ondorioen profila ere oso kontuan eduki behar da. |
| B | Hipertentsioaren kontrako botiken asoziazioak planteatzen direnean, diuretikoak, BBak eta kaltzioaren antagonistak dosi estandarraren erdian erabil daitezke albo-ondorioak gutxitzeko; AEBlak eta AHA IIak, ordea, bere ohizko dosira mantendu behar dira. |

2007

3.2.8. HTAren tratamendu farmakologikoa adineko pertsonetan**2007ko EGUNERATZEA****Galdera berria**

Adinean aurrera doan biztanlerian, tratamendu farmakologikoaren hautaketa arau orokorrak jarraituz egingo da, HTAren inguruan egindako saiakuntza kliniko nagusiek normalean 60 urtetik gorako pazienteen proportzio handia hartzen baitute euren barruan. Populazio horretan zentratuz egindako saiakuntza espezifikoagoek ere, ANBP-2 (115) edo SCOPE (106) saiakuntzek esaterako, ez dute botika klase jakin bat beste bat baino hobea edo eraginkorragoa dela argi eta garbi frogatzerik lortu.

SKA
1+

Duela gutxi argitaratu da HYVET izeneko saiakuntza, eta bertan 3.845 hipertentsio aztertu dira (gehienak gaixotasun kardiobaskular asoziatuak gabe), 80 urtetik gorakoak eta PAS $\geq$ 160 mm Hg dutenak. Ikerketa horretan pazienteei askapen atzeratuko indapamida jarri zitzaizen tratamendu moduan, 1,5 mg gehi 2-4 mg perindopril, beharrezkoa izanez gero, helburuko zifra gisa xede hauek lortzeko: PAS < 150 mm Hg eta PAD < 80 mm Hg. Tratamendu horrek % 30eko murrizketa ekarri zuen IZBetan (aldagai nagusia) eta % 21ekoa edozein arrazoik eragindako hilkortasunean, plazeboarekin konparatuz. Albo-ondorioak gutxiagotan agertu ziren tratamendu farmakologikoaren adarrean (116).

SKA
1+

Paziente-talde honetan diuretikoak dira aukerako tratamendua, tratamendu farmakologikoari heldu nahi zaionean. Baina adineko pazienteak lehendik tratamendua martxan edukiko balu, tratamendu horrekin jarraitzea gomendatzen da (3-5).

Adituen
iritzia
4**Gomendioa**

2007	A	60-80 urte bitarteko pazienteetan, hipertentsioaren kontrako tratamenduaren pauta orokorreki jarraitzea gomendatzen da.
2007	A	PAS $\geq$ 160 mm Hg duten 80 urteko edo hortik gorako pazienteetan indapamida gomendatzen da tratamendu farmakologikoaren hasiera bezala, perindopril gehituz (4 mg arte) PA kontrolatzeko beharrezkoa baldin bada.
2007	D	80 urtetik gorakoetan aurrez ezarritako tratamenduekin jarraitzea gomendatzen da, botikak ongi jasaten badira. Egoera berezietan PKG honetako atal berezietan emandako gomendioak jarraituko dira.

3.3. Tratamendu farmakologikoa egoera berezietan

3.3.1. Diabetes mellitusa, nefropatiarik gabe

ERANTZUTEKO GALDERAK

- ▶ Zeintzuk dira PAREN helburuko zifrak paziente diabetiko hipertentsoaren tratamenduan?
- ▶ Zein da hipertentsioaren kontrako aukerako tratamendua diabetikoetan?

2007ko EGUNERATZEA

Lau BS berri (117-119) eta SKA berri bat (120)

Aldaketa helburuko edo xede-zifretan

Gomendio osatua, aukerako tratamendu farmakologikoaren inguruan

Helburuko zifrak

Kontsultatu diren oinarritzko PKGak helburuko zifrak hauek gomendatzen dituzte: 130 mm Hg-ko PAS eta 80 mm Hg-ko PAD. Bi zifra horiek ikerketa bertsuen analisietan oinarritzen dira: UKPDS ikerketa, batetik (121) eta HOT ikerketa, bestetik (49). NICE erakundeak nefropatia diabetikoari buruz osatutako PKGak 140/80 mm Hg-ko zifrak gomendatzen ditu (122).

38. UKPDSan (122) PAREN kontrol zorrotzaren taldean jarritako pazienteek (helburua: < 150/85 mm Hg; lortua: 144/82 mm Hg) diabetesarekin lotutako ezein gertakari jasateko arrisku gutxiago izan zuten eta baita diabetesarekin lotutako hilkortasun txikiagoa ere, PAREN kontrol ez hain zorrotza izan zuten pazienteek baino (helburua: < 180/105 mm Hg; lortua: 154/87 mm Hg). HOT ikerketaren barruan, paziente diabetikoen artean aurrezarri gabeko analisi batek erakusten du $PAD \leq 80$ mm Hg-ko helburuko PA diastolikoaren zifrak lortzera bideratutako azpitaldeak diferentziak zituela, $PAD \leq 90$ mm Hg-ko helburuko zifrak lortzera jarritako azpitaldearekin alderatuz gero. Eta hilkortasun totalean alderik ez dagoen arren, helburu gisa PAREN kontrol ez hain zorrotzera jarritako pazienteek hilkortasun kardiobaskularraren arrisku handiagoa daukate.

SKA
1+

Puntu honi buruz oraintsu egindako berrikuspen batek (118) ondorioztatzen du ebidentzia gutxi daudela zifra zehatz bat gomendatzeko eta PAS < 140 mm Hg eta PAD < 80 mm Hg-ko zifrak aukeratzen dituzte orientazio moduan.

SKAen
BS
1+

Gomendioa**2007****B/D**

HTA esentziala eta nefropatiarik gabeko 2 tipoko DM duten pazienteetan PAS < 140 mm Hg eta PAD < 80 mm Hg-ko helburuko zifrak gomendatzen dira tratamenduaren xede moduan.

Tratamendu farmakologikoa

Ebidentzia sendoak daude esateko biztanleria diabetikoan lortutako mesede kardiobaskularrak ez daudela biztanleria orokorrean ikusitakoetatik oso urruti (117). Gertakari kardiobaskularrei dagokienez, itxuraz paziente diabetikoetan eragin bereziki mesedegarririk duen farmako edo botika-talderik ez dagoela dioen ideia berresten du gertaera horrek.

ALLHAT izenekoa da (123) inoiz bere baitan diabetikoen kopururik handiena hartu duen saiakuntza (13.101 paziente). Diabetikoetan ez da alderik ikusten klortalidona vs. lisinopril edo klortalidona vs. amlodipino bikoteetan bihotzeko gaixotasun koronarioaren aldagai nagusiaren emaitzari dagokionez, ezta beste emaitza-aldagai sekundario batzuetan ere, bihotzeko gutxiegitasunean izan ezik, kasu horretan klortalidona amlodipino eta lisinopril baino hobea izan baitzen.

SKA
1+

Kaltzioaren antagonistentzat, berriz, diabetikoekin soilik egindako kalitate-maila baxuko zenbait ikerketa txikitan (124;125), emaitza nahiko kaskarrak lortu dira morbmortalitate kardiobaskularrari dagokionez AEBlakin konparatuz gero. INSIGHT saiakuntzan (126), aldiz, diabetikoen azpitaldearen azterketan ez zen morbmortalitate kardiobaskularrean diferentziarik egon diuretikoaren (hidroklorotiazida/amiloride) eta nifedipino GITSaren artean. Kalitate eskaseko bi metaanalisis (117;119) emaitza okerragoak lortu zituzten kaltzio-antagonistentzat bihotz-gutxiegitasunaren emaitza aldagaian tratamendu konbentzionalarekin (diuretiko/BB) edo AEBl/AHA II botikekin alderatuz gero.

SKAen
BS
1+

AHA II botikei dagokienez, nefropatiarik gabeko diabetesean lortutako aldeko ebidentzia bakarrak EzBH zuten pazienteekin egindako LIFE saiakuntzatik datoz (109). Losartanek atenololek baino gehiago murriztu zuen morbmortalitate kardiobaskularra, baina konparazio-puntu desegokia da hori, egungo ebidentzien argitan (ikus biztanleria orokorraren inguruko testua).

UKPDS saiakuntzan (127) ez zen alde esanguratsurik aurkitu betablokeatzaileen (atenolol) eta AEBl (kaptopril) botiken artean, emaitza kardiobaskularrei edo giltzurrunekoei dagokienez. Hala ere, LIFE saiakuntzaren emaitzek, biztanleria orokorrean egindako berrikuspen sistematikoek eskainitako azken ebidentziekin batera betablokeatzaileak ez gomendatzera garamatzate HTAren tratamendu moduan 2 tipoko DM egoeran, botika horiek erabiltzeko beste indikazio sendorik, hala nola kardiopatia iskemikoa edo bihotzeko gutxiegitasuna, egon ezean.

SKA
1+

AEBl edo AHA II botikek, bakoitzak bere aldetik, PA murrizteaz gain dituzten eragin giltzurrun-babesleak zalantzan jarri ditu berriki egindako metaanalis batek (18).

AEBl eta AHA II botikek ez dute frogatu paziente diabetikoetan giltzurruneko konplikazioak gutxitzeko beste antihipertentsiboak baino hobeak direnik. AEBlak diabetesean duten eragin giltzurrun-babesleari buruzko Cochrane berrikuspen batean, ez zen alderik aurkitu AEBlen eta kaltzio-antagonisten edo plazeboaren artean hilkortasun totalaren edo giltzurruneko gaixotasun terminalaren prebentzioan, ezta kreatininaren bikoizketan ere. Diferentziak ikusi ziren, ordea, mikroalbuminuriaren agerpenean. Ez dago gainerako antihipertentsiboekin konparatu ahal izateko adina daturik (120).

SKAen
BS
1+

Oraintsuko ONTARGET ikerketako diabetikoen azpitaldean, telmisartan ez zen ramipril baino hobe izan morbidimortalitate kardiobaskularraren prebentzioan (110).

SKA
1++

Diabetes mellituseko HTA sistoliko isolatuari dagokionez, gidaren aurreko bertsioan esandakoak indarrean jarraitzen du. SHEP ikerketak (114) 10 urtera egindako jarraipenak sendotasuna ematen die diuretikoek dakartzaten mesedeei.

SKA
1+

Gomendioa

2007

A Diuretiko tiazidikoak edo AEBlak gomendatzen dira aukerako tratamendu gisa 2 tipoko DM duten paziente hipertentsoetan eta kaltzio-antagonistak, dihidropiridinikoak eta AHA IIak tratamendu alternatibo moduan.

2007

B Betablokeatzaileak ez dira gomendatzen hipertentso diabetikoan, horiek erabiltzeko beste indikazio sendoren bat, adibidez kardiopatia iskemikoa edo bihotz-gutxiegitasuna, ez badago behintzat.

B HTA sistoliko isolatua duten adineko paziente hipertentsoak batez ere dosi baxuko diuretikoekin edo ekintza luzeko dihidropiridinekin (nitrendipinoarekin, adibidez) tratatu beharko lirakeke.

3.3.2. Nefropatia diabetikoa

ERANTZUTEKO GALDERAK

- ▶ Zeintzuk dira helburuko PA zifrak nefropatia diabetikoa duen paziente diabetiko hipertentsoaren tratamenduan?
- ▶ Zein da aukerako tratamendu antihipertentsiboa nefropatia diabetikoan?

2007ko EGUNERATZEA

Hiru berrikuspen sistematiko berri (117;118;128) eta 2 SKA berri (129;130)

Aldaketa helburuko zifretan

Aldaketarik ez aukerako tratamendu farmakologikoaren gomendioan

Helburuko zifrak

Nefropatia diabetikoaren historia naturalak hasi giltzurrunaren alterazio funtzionaletatik eta giltzurrun-gutxiegitasun terminalerainoko bidea egiten du, mikroalbuminuria eta proteinuriaren agerpenak ezaugarritzen dituzten tarteko estadioak ere pasatuz (12. taula). Mikroalbuminuria agertzeak nefropatia baten hasiera adierazten du.

12. taula Nefropatia diabetikoaren sailkapena

	Albumina, 24 orduko gernuan (mg)	Albumina/kreatinina zatidura (AKZ) (mg/g)
Normala	<30	<30
Mikroalbuminuria	30-299	30-299
Proteinuria	≥300	≥300

Nefropatia duten paziente diabetikoetan PA maila desberdinak lortzeak dakartzan mesedeen inguruan kokatutako ebidentziak datu erabakigarriak eskaintzen ditu. Mikroalbuminuria edo nefropatia zuten 1 eta 2 tipoko diabetikoekin egindako BS batek (128) alde nabarmenak aurkitu zituen giltzurrun-funtzioaren narriaduran edo giltzurruneko gutxiegitasun terminaleranzko (GGT) eboluzioan lortutako PA zifra diferenteen artean. Hala ere, PA zifra baxuagoak lortzen dituzten taldeek albuminaren iraizpen-tasa apalagoak izan ohi dituzte.

**SKAren
BS
1+**

IDNT (129) eta RENAAL (130) ikerketen bi azterketa argitaratu dira, a posteriori bata nahiz bestea, eta euren diseinuagatik azterketa horien ebidentziak ahulak dira. Hilkortasunean eta giltzurruneko emaitzetan lortutako mesedeak PAS zifra 120 eta 130 mm Hg artean mantentzearekin lotzen ditu aurreneko azterketak, baina ez du inolako korrelaziorik aurkitzen PAD zifraren eta giltzurrunari nahiz heriotza-tasari dagozkion emaitzen artean. Bigarren ikerketan itxuraz ez dago alde estatistikoki esanguratsurik GGTERa egindako progresioan, jarraipeneko PAREN zifrak maila hauetan mantentzen diren bitartean: PAS < 140 mm Hg eta PAD < 90 mm Hg.

SKA
1+

Gomendioa

2007

D

HTA eta nefropatia diabetikoa duten pazienteek tratamendua hartu beharra daukate euren PA jaisteko, 140/80 mm Hg-tik beherako zifrak lortzeraino hain zuzen ere.

Tratamendu farmakologikoa

Ebidentzia ugari eta sendoen arabera errenina/angiotentsina sistema blokeatzen duten farmakoek (AEBlek edo AHA II) hobetu egiten dituzte giltzurrun-funtzioaren parametro batzuk, albuminuria esaterako, eta nefropatiaren progresioa atzeratu egiten dute (10), duela gutxiko metaanalisi batek aurreko lorpenak euren eragin hipotentsorearekin lotuak daudela iradokitzen duen arren (131).

SKAren
BS
1+

Cochrane berrikuspen baten arabera (132), AEBlak eta AHA II eraginkorrak dira giltzurruneko emaitza-aldagaien gain (GGT, kreatinina serikoaren bikoizketa, mikroalbuminuriatik makroalbuminuriara aurrera egitea). Ez dirudi alderik dagoenik bi botika-taldeen artean emaitza horiei dagokionez, baina hala ere elkarren arteko zuzeneko konparazioak falta dira. Ez AEBlek ezta AHA IIek ere ez zuten hilkortasun totala murriztu plazeboarekin alderatuz. AEBlak dosi osoetan erabili zituzten ikerketak bereiz aztertuz gero, ordea, hilkortasunaren murrizketa esanguratsua izan zela ikusi zen.

Eta AEBlen eta AHA IIen arteko konbinazioari dagokionez, egindako ikerketek paziente gutxi hartzen dituzte eta tarteko aldagaiak besterik ez dira ebaluatu horietan. SKA hauek duela gutxiko metaanalisi batean biltzen dira (133), eta epe laburrera (12 aste) proteinuriak hobera egiten duela ikusten da bertan, potasio-mailak ere zertxobait gora eginez.

SKAren
BS
1+

Paziente bat konbinazioko terapian sartzeko modukoa dela iritziz gero, arreta espezializatuko eremura bideratu beharko da.

Gomendioa

A

DM eta nefropatia duten paziente hipertentsoak AEBl batekin tratatu behar dira. AHA II da tratamendu alternatiboa.

3.3.3. Nefropatia ez diabetikoa

ERANTZUTEKO GALDERAK

- ▶ Zeintzuk dira helburuko PA zifrak nefropatia ez diabetikoa duen paziente hipertentsoaren tratamenduan?
- ▶ Zein da aukerako tratamendu antihipertentsiboa nefropatia ez diabetikoarekin batera agertzen den hipertentsioan?
- ▶ AEBlen eta AHA lleen konbinazioa monoterapia baino eraginkorragoa al da giltzurruneke hutsegiterako progresioa gerarazteko?

2007ko EGUNERATZEA

BS berria (131) eta SKA berria (134)

Aldaketa helburuko PA zifretan

Aldaketarik ez aukerako tratamendu farmakologikoaren gomendioan

Helburuko zifrak

Hainbat ikerketa argitaratu dira azken urteotan nefropatia ez diabetikoan presio arterialaren kontroleko zifra hoberenak zeintzuk diren argitu nahian, eta horien ondorioz aurreko gomendioak aldatu egin dira. MDRD ikerketaren epe luzeko (10 urte arteko) jarraipenak (135) erakusten duen bezala, PAren kontrol zorrotza ezarri zitzaion taldeak (PAren helburuko zifrak $< 125/75$ mm Hg) giltzurruneke hutsegitea izateko arrisku gutxiago zuen. Jarraipena, ordea, saiakuntzatik kanpo egin zen, eta ez ziren kontrolatu tratamenduaren adarretan lortutako PA zifrak, ezta aldi bereko AEBlen erabilera, edo saiakuntzaz kanpoko datu-baseetatik lortu ziren giltzurrun-hutsegite edo heriotza emaitzak ere. Eta akats horiek guztiak muga garrantzitsuak dira emaitzak orokortu ahal izateko.

AASK ikerketan (136) (batez besteko oinarritzko proteinuria: 0,61 g/egun), ez zen alde esanguratsurik lortu giltzurruneke emaitza aldagaietan, helburu gisa 125/75 mm Hg-tik beherako PA eta 140/90 mm Hg-tik beherako PA zuten taldeen artean. REIN-2 ikerketan, berriz, (134) (proteinuria basala: 1 g/24h-tik gorakoa) ez zen diferentziarik sumatu giltzurruneke hutsegiterako progresioan tratamenduaren bi adarren artean: kontrol intentsiboko adarrak PA $< 130/80$ mm Hg-ko helburu-zifrak zituen (129,6 mm Hg-ko PAS eta 79,5 mm Hg-ko PAD lortu ziren) eta kontrol ez hain zorrotzeko beste adarrak, aldiz, helburu bezala PAD < 90 mmHg (133,7 mm Hg-ko PAS eta 82,3 mm Hg-ko PAD lortu ziren). Paziente guztiak ramipril hartzen ari ziren.

SKA
1+

Laburbilduz, ikerketek nolabaiteko zalantzak uzten dizkigute, ez baitago erabat argi PAren kontrol zorrotzak ohizko helburu-zifrek baino emaitza hobekiago lortzen dituen ala ez, ikerketa horiek hainbat alderditan —metodologia, zer-nolako pazienteak hartuko dituzten barruan (giltzurruneko gutxiegitasunaren mota, proteinuria basalaren maila, etab.), erabilitako tratamendu farmakologikoak, PAren helburuko zifrak eta ikerketa horietan benetan lortzen den PA— elkarren artean dituzten diferentzien eraginez seguruenik. Eta horrek guztiak asko zailtzen du puntu honetan gomendio sendoak hartu ahal izatea. Gaur-gaurkoz, PA < 130/80 mm Hg-ko helburua lortzea arrazoizko gomendioa izan daitekeela pentsatzen da, saiakuntza klinikoetan izandako emaitzen argitan.

**Kohorteen
ikerketak**
2+

Oraindik zalantzan dago, ea proteinuria apaleko kasuetan (1 g/egun baino gutxiago) PAren mailak 140/90 mm Hg-z azpitik mantentzea aski izan daitekeen, baina arrazoizkoa da pentsatzea PAren murrizketa zertxobait handiagoak lortuz gero proteinuria eta, ondorioz, baita giltzurruneko kaltea ere, jaistea ekarriko duela. Paziente-talde horrentzat gidaren aurreko bertsioak ematen zituen zifrak baino apur bat handiagoak gomendatzen dira oraingo honetan (PA < 130/85) (10).

**Adituen
iritzia**
4

Gomendioa

2007

D

Nefropatia ez diabetikoa eta proteinuria nabarmena (> 1 g/egun) duten pazienteetan, datu guztiak bat ez datozen arren, PA 130/80 mm Hg-z azpitik mantentzea gomendatzen da, tratamendua ondo jasanez gero, betiere. Baldin eta proteinuria < 1 g/egun bada, proposatutako zifrak 130/85 mm Hg-koak dira.

Tratamendu farmakologikoa

Ebidentzia ugari frogatzen duten bezala, nefropatia ez diabetikoan AEBl mota desberdinek murrizten dute giltzurruneko gutxiegitasun terminalerako (GGT) progresioaren arriskua eta baita GGTrako progresioaren eta/edo kreatinina serikoa bikoizteko arriskua plazeboarekin alderatuz gero (10). Ez da ebaluatu ea AEBl diferenteen artean alderik badagoen ala ez, eta ikerketa horietan aldi berean beste antihipertentsibo batzuk ere erabiltzen ziren normalean.

Beste antihipertentsibo batzuei dagokienez, ALLHAT ikerketaz geroztik egindako analisi desberdinek ez dute alderik erakusten giltzurrun-gutxiegitasuna duten pazienteetan klortalidona, lisinopril edo amlodipinoren artean, ez giltzurruneko emaitzetan eta ezta emaitza kardiobaskularretan ere (137). Hala ere, ikerketa horietan hartu ohi den paziente mota (arrisku kardiobaskular handikoa normalean), eta baita horien diseinua ere ikusita —nefropatia aztertzeke beste ikerketa espezifikoenaz oso diferentea—, agian horrek azal dezake zergatik daukaten hain eragin eskasa AEBl-eko kasu honetan.

SKA
1+

AEBlen (edo AHA II botiken) mesedeak errenina-angiotentsina sistemaren inhibizioak dakartzan eragin giltzurrun-babesle espezifikoek sortua dela zalantzan jartzen du metaanalisi batek (131), AEBlen edo AHA II en eta beste antihipertentsibo batzuen artean ez baitu alde esanguratsurik aurkitzen “kreatininaren bikoizketa” edo GGT bezalako emaitza-aldagaietan. Metaanalisi horrek iradokitzen duenez, PA zifren jaitsiera-maila bera izanda ere, ez dirudi AEBl/AHA II botikek mesede gehigarriak dakartenik (balizko eragin “giltzurrun-babeslea”). Nefropatia ez diabetikoa zuten pazienteen azpitaldean ere ez zen horrelako alderik aurkitu, baina lortutako konfiantza-tarteak oso zabalak dira eta ezin da AEBlen eragin mesedegarriak baztertu, inolaz ere. AEBlak edo AHA II-ak plazeboarekin alderatuz gero, ordea, GGT emaitza aldagaiarentzat aurkitzen den aldea estatistikoki esanguratsua da.

SKAen
BS
1+

Kontuan eduki behar da AEBl-ekin egindako tratamenduaren aurreneko bi hilabeteetan egonkortzen diren kreatinina serikoaren % 30erainoko gehikuntzak giltzurrun-funtzioa epe luzerako gorde eta mantentzearekin lotzen direla; beraz, aurreneko bi hilabeteetan kreatinina serikoaren kontzentrazioa oinarritzko zifraren % 30 baino handiagoa denean edo hiperpotasemia garatzen denean bakarrik etengo da AEBl-ekin egindako tratamendua (10).

AHA II botikei dagokionez, ez da aurkitu alderdi klinikotik emaitza aldagai garrantzitsuak eskaini, iraupen nahikoa izan eta AHA II vs. plazeboa konparatzen duen inolako ikerketarik.

Oinarritzko PKGak bat datoz eta AHA II-ak gomendatzen dituzte, AEBl-ekiko tratamendu batek botika bertan behera uztera behartuko gaituen albo-ondorioak emango lituzkeen kasurako.

PKG

AEBl gehi AHA II konbinazioa botika bakoitza bereiz ematea baino erangikorragoa ote den aztertu duten saiakuntzarik gehienek proteinuria bakarrik baloratzen dute emaitza aldagai gisa. GGT edo kreatininaren bikoizketa baloratzen dituen SKA bakarra COOPERATE ikerketa da (138), eta bertan losartan + trandolapril konbinazioak GGT edo kreatinina-bikoizketaren emaitza konbinatuaren murrizketa lortu zuen losartan-ekin alderatuz gero.

SKA
1++

PA zifretan eta proteinurian izandako aldaketak baloratzen dituen berrikuspen sistematiko batean (139) ikusten da proteinuria jaisteko joera handiagoa lortzen dela AEBlak eta AHA II botikak konbinatuz (kalitate aldakorreko eta gehienez ere 16 asteko iraupeneko tratamendua duten saiakuntza gurutzatuak); hala ere, PA zifren beharakada handiagoak lortzen dira terapia konbinatuarekin ere, eta horrek azal dezake, agian, emaitza hori.

SKAen
BS
1+
SKA
1+

Gomendioa

- | | |
|----------|--|
| A | AEBlak erabiltzea gomendatzen da nefropatia ez diabetikoa duten paziente hipertentsoen hasierako tratamendu bezala. |
| B | AEBlarekiko jasanezintasuna agertuz gero (botika bertan behera uztera behartuko gaituzten albo-ondorioak), AHA II botika bat gomendatzen da hasierako tratamenduaren alternatiba moduan. |
| ✓ | AEBlak edo AHA IIak erabili ahal zango dira, baldin eta giltzurrun-arterien alde biko estenosirik ez badago, edo alde bakarreko estenosia, giltzurruna bakarra den kasuetan. |
| ✓ | AEBI gehi AHA II konbinazioa baliagarria izan daiteke paziente jakin batzuetan. Dena den, arreta espezializatuaren eremuan hautatu behar dira paziente horiek. |

3.3.4. Bihotzeko gutxiegitasun kongestiboa (BGK)

ERANTZUTEN GALDERAK

- Zein da hipertentsioaren kontrako aukerako tratamendua ezker-bentrikuluaren disfuntzio sistolikoa dela medio bihotzeko gutxiegitasuna duen paziente hipertentsoan?

2007ko EGUNERATZEA

3 SKA berri (140-142) eta 3 BS berri (143-145)

Gomendio osatua

Bihotzeko gutxiegitasuna edo ezker-bentrikuluko disfuntzio sistolikoa duten pazienteetan egindako SKAek ezaugarri antihipertentsiboak dituzten farmakoak ebaluatu dituzte, baina BGK eta HTA duten pazienteetan, ordea, ez dira ebaluatu farmako horiek berek espezififikoki dituzten mesedeak. BGK duten pazienteetan HTA tratatzeak dakartzan mesedeak ez dira aski ezagutzen eta sarritan BGKren progresioa bihotz-funtzioaren narriaduragatiko PA zifrak jaistearekin lotzen da.

AEBlak eta AHA II

AEBlekin egindako tratamenduak % 20an murrizten du hilkortasuna eta % 33an ospitaleratze premia, edozein dela ere BGKren etiologia eta klase funtzionala (10;146).

**SKAen
BS
1+/1++**

Ebidentziak sendoak bezain garrantzitsuak dira, esateko AHA II botikek ez dutela aparteko mesede gehigarririk eskaintzen AEBlakin alderatzen direnean (143). Ebidentziak sendoak dira AEBlarekiko jasanezintasunean AHA II bat gomendatzeko, are gehiago biztanle jakin horietan hain zuzen ere onuragarriak direla frogatzen duen CHARM-alternative ikerketa (141) argitaratu ondoren.

SKA
1+

Galdera, zalantza eta kontraesanak AEBlen eta AHA II-en konbinazioak planteatzen ditu. Konbinazio horrek ez du onurarik ekartzen BGKren hilkortasunari dagokionez, baina bai, ordea, gaitz horrek eragindako ospitaleratze-tasan (143). Kontraesanak AEBlaz gain BB bat hartzen duten pazienteen azpitaldeetan agertzen dira batik bat. Berrikuspen sistematiko batek frogatzen duenez (144), BBrik hartzen ez duten pazienteetan AHA II gehi AEBl konbinazioak eragin onuragarriak izan ditzake morbiditatean, ospitaleratze ariskua murrizten delako batez ere, baina ez dago apenas alderik hilkortasun totalari begira. AEBl + BB tratamendua hartzen duten pazienteetan, ikerketek emaitza heterogeneoak izan dituzte. ValHeFT saiakuntzan (147) (valsartan erabiltzen da bertan) plazeboarekin alderatuz heriotza-tasa totalak gora egiten duen bitartean, CHARM-added ikerketan (140) kandesartanek murriztu egin zuen BGK-k eragindako heriotza kardiobaskularraren edo ospitaleratzearen ariskua plazeboaren aurrean, eta ez dago alderik heriotza-tasa totalari dagokionez.

SKA
1+

Laburbilduz, AHA II + AEBl konbinazioa erabiltzearen eragin klinikoa ez dago erabat argi. Ez da onurarik ikusten heriotza-tasa totalean, baina BGKak eragindako ospitaleratze-ariskua murrizteko mesedegarria izan daiteke, batik bat betablokeatzaile erantsirik hartzen ez duten biztanleetan. Hala ere, albo-ondorioak ere gehitu egiten dira, batez ere kreatininaren gorakada, hipotentsioa eta hiperpotasemia, eta horrek guztiak % 5,9ko diferentzia absolutua ekartzen du tratamenduak bertan behera uzteko orduan.

Eragin horiek berak ikusi dira arrisku kardiobaskular altuko baina bihotzeko gutxiegitasun sintomatikorik gabeko pazienteetan AEBl + AHA II asoziazioa (ramipril eta telmisartan) botika horietako bakoitzarekin konparatzen zituen ONTARGET ikerketaren adarrean (110).

Betablokeatzaileak

BBekin (metoprolol, bisoprolol, karvedilol) egindako tratamenduak murriztu egiten ditu heriotza-tasa eta ospitaleratze ariskua, NYHA II-IV klase funtzionaleko bihotz-gutxiegitasun egonkorra duten pazienteetan (10;148;149).

SKAen
BS
1++

70 urtetik gorako pazienteetan, nebivolol-ek nabarmen murriztu zuen arrazoi kardiobaskularrengatiko hilkortasun totalaren eta ospitaleratzearen emaitza-aldagai konbinatua, plazeboarekin konparatuz (142). Argitaratutako beste ikerketa batzuek (150;151) diotenez, betablokeatzaileek mesede egiten diete emakumeei eta paziente diabetikoei, baina arraza beltzeko pazienteetan ez da eragin esanguratsurik aurkitzen.

SKA
1+

Kaltzioaren antagonistak

Kaltzio-antagonistei dagokienez, bihotzeko gutxiegitasunean ez da ebidentzia berririk aurkitu. Amlodipinoak eta felodipinoak ez dute hilkortasuna gutxitzen BGK duten pazienteetan, eta botika gehigarri moduan erabiltzeko gorde behar dira paziente hauetan kontrolatu gabeko HTA tratatzeko, edo antianginoso moduan bestela (10).

Diuretikoak

Hainbat diuretikok (lakiokoak, tiazidak, etab.) BGK duten erabilerari buruzko Cochrane berrikuspen batek (145) diuretikoek sintomak arintzen dituztela, deskompentsazioko gertakariak gutxitzen dituztela eta ariketa egiteko gaitasuna gehitzen dutela esateko froga sendoak eskaintzen ditu. Baina frogak, ordea, ahulak dira bihotzeko gutxiegitasun kronikoa duten pazienteetan heriotza-tasari buruzko eragina ebaluatzeko. Hala ere, bihotz-gutxiegitasunak eragindako hilkortasunaren edo ospitaleratzeiko arriskuaren murrizketa frogatu den saiakuntza kliniko zabal guztietan, pazienteen % 90ek baino gehiagok era horretako diuretikoen tratamendua jasotzen zuten.

**SKAen
BS
1+**

Gomendioa	
A	BGK duten paziente hipertentso guztiak AEBlekin tratatu behar dira, edozein dela ere gutxiegitasunaren etiologia edo klase funtzionala, kontraindikaziorik ez badute, noski, eta botikak jasaten badituzte. AEBlak jasaten ez dituzten pazienteetan AHA II botika bat erabiltzea gomendatzen da.
A	BGK duten paziente hipertentso guztiak, II-IV klase funtzionaletan nahiz fase egonkorrean daudenak eta aurrez tratamendu estandarra (AEBlak, diuretikoak eta/edo digoxina) hartzen ari direnak, betablokeatzaileekin tratatzea gomendatzen da.
✓	Betablokeatzaileen dosiaren titulazioa poliki-poliki egin behar da, astean behin, tolerantzia hobetzeko.
✓	Gomendatutako betablokeatzaileak hauek dira: bisoprolol, karvedilol, metoprolol retard eta nebivolol.
2007 B*	BGK duten paziente hipertentsoetan alternatiba gisa AEBI + AHA II konbinazioa gomendatzen da (valsartan edo kandesartan), betablokeatzaileak ondo jasan ez edo kontraindikatuak dauden kasuetan.
2007 ✓	AEBI + AHA II konbinazioaren albo-ondorioak (hipotentsioa, hiperpotasemia eta giltzurruneko funtzioaren narriadura) gertutik kontrolatzea gomendatzen da.

2007

B*	HTA gaizki kontrolatuz gero, kandesartan gehi daiteke, AEBlén, betablokeatzaileen eta diuretikoaren dosiak optimizatuak egon arren.
B	BGK duten paziente hipertentsoetan ez dira dihidropiridinak erabili behar tratamendu estandarren osagai bezala.
✓	PA kontrolatzeko farmako gehigarriak behar badira bakarrik erabiliko dira ekintza luzeko dihidropiridinak (amlodipinoa, felodipinoa) edo antianginoso bezala, bestela.

* Gomendioaren maila gutxitu egin da azpitaldeen analisia delako.

3.3.5. Kardiopatia iskemikoa

ERANTZUTEN KOTZUTAKO GALDERAK

- ▶ Zein da angina egonkorra duen hipertentsoaren aukerako tratamendua?
- ▶ Zein da miokardioko infartu bat izan duen hipertentsoaren aukerako tratamendua?

2007ko EGUNERATZEA

2 BS berri (154;155) eta 6 SKA berri (110;152;153;156-158)
Funtsezko aldaketarik ez gomendioan

Azken hamarkadetan, kardiopatia iskemikoaren historia naturala ikaragarri aldatu da, kardiologia interbentzionistak erdietsi duen ospe eta arrakastaren ondorioz, eta horrela gaur egun, paziente horietako askoren azterketa angiografikoa egitea ohizkoa da, eta baita errebaskularizazio koronarioko prozedurei ekitea ere, behar izanez gero. Arrazoi horregatik, hainbat saiakuntza kliniko diseinatu dira, eta horietan sartzen dira, kardiopatia koronario egonkorra izen orokorraren azpian, bai aurrez MIA bat izan duten pazienteak, angiografia bidez dokumentatutako kardiopatia koronarioa dutenak (baina aurrez MIarik izan gabe), errebaskularizazio prozedurak egin zaizkienak nahiz horrelakorik egin gabeak, eta baita angiografiarik gabeko kardiopatia koronarioa dutenak ere.

2002. urtetik hona kardiopatia iskemikoaren inguruan argitaratutako SAK gehienek AEBlén edo kaltzio-antagonisten eragina aztertu dute.

SKA
1+

Betablokeatzaileak

Betablokeatzaileekin morbidimortalitatearen beherakada frogatzen duten ikerketak MIA bat izandako pazienteetan egin dira, disfuntzio sistolikoarekin edo gabe, eta metaanalisik diferenteen emaitzak bateragarriak dira (10). Angina egonkorrean aurreneko aukera bezala gomendatzen dira, kaltzio-antagonisten aurretik, ez bakarrik bere ezaugarri antianginosoengatik, baita MIAren morbidimortalitatea gutxitzeko dituzten ebidentziak estrapolatuz ere.

**SKAen
BS
1+**

AEBI eta AHA II

AEBIen onurak nabarmenak dira disfuntzio sistolikoarekin batera doan MIA bat izan duten pazienteetan (10). Era berean, gaitz honen kasuan badira AEBIen eta AHA IIen arteko baliokidetasun terapeutikoko probak, losartan eta valsartan, hurrenez hurren, erabiliz egindako OPTIMAAL (154) eta VALIANT (155) saiakuntzetatik ateratakoak. AEBI + AHA II konbinazioa VALIANT ikerketan aztertua izan zen, eta ez zen inolako alderik aurkitu morbidimortalitatean, baina bai, ordea, tratamendua bertan behera uztera behartzen gaituzten albo-ondorioetan, botiken konbinazioa erabiliz tratatutako taldean.

**SKA
1+**

Disfuntzio sistolikorik gabeko kardiopatia iskemikoa duten pazienteetan egindako bi metaanalisik (152;153) frogatzen duten bezala, ohizko tratamenduari gehitutako AEBIek murriztu egiten dute hilkortasun totala eta baita hilkortasun kardiobaskularra ere plazeboarekin konparatzen baditugu. Metaanalisian sartutako saiakuntzen artean, emaitzarik onenak lortzen dituztenetan, HOPE eta EUROPA izenekoetan (159), erabilitako dosiak altuak ziren, 10 mg ramipril eta 8 mg perindopril hurrenez hurren, eta ez dago oso argi dosi txikiagoekin ere onura horiek berak lortu ahal izango lirakeen ala ez. Enalapril-ekin egindako bi saiakuntzetan erabilitako dosiak 10 mg/12 ordukoak izan ziren.

**SKAen
BS
1+**

Oraintsuko ONTARGET ikerketan (110) telmisartan ez da ramipril baino hobea izan bigarren mailako prebentzioko pazienteen morbidimortalitate kardiobaskularren prebentzioan (% 74 gaixotasun koronarioan eta % 49 MIAren ostean)

**SKA
1++**

Kaltzioaren antagonistak

Kaltzio-antagonistekin egindako ikerketek emaitza aski heterogeneoak izan dituzte. INVEST saiakuntzak, adibidez (156), (kardiopatia iskemikoa duten pazienteak) bi estrategia konparatzen ditu: verapamil (+ trandolapril), batetik, eta atenolol (+ hidroklorotiazida), bestetik. Ez zen diferentziarik aurkitu ebaluatutako emaitza-aldagai bakar batean ere. Beraz, kardiopatia iskemikoan verapamil

**SKA
1+**

betablokeatzaileen alternatiba egokitzat har daiteke, azken botika horiek kontraindikatuak badaude (bi farmakoak ez dira elkarrekin nahastu behar bradikardia-arrikuagatik).

SKA
1+

Dihidropiridinen kasuan, emaitza faboragarriak izan dituen saiakuntza bakarra CAMELOT izenekoa da (157), kardiopatia iskemikoa eta PA "normala" (PAD < 100 mm Hg) duten pazienteetan amlodipinoa plazeboaren eta enalaprilaren aurrian konparatzen duena. Ez dago alde esanguratsurik amlodipinoaren eta enalaprilaren artean.

SKA
1+

Angina egonkorra duten pazienteetan, ACTION azterketan hain zuzen ere (158), nifedipino GITS (ohizko tratamenduari erantsita) eraginkorra izan zen morbidimortalitate kardiobaskularraren prebentzioan hipertentsoen azpitaldean.

Berehalako ekintza duen nifedipinoa erabiltzeko erreparoak hortxe jarraitzen dute oraindik ere (10).

Gomendioa

- | | |
|-----------|--|
| A | Betablokeatzaileak dira HTA tratatzeko aukerako farmakoak MIA historia duten paziente hipertentsoetan. |
| B* | Betablokeatzaileak dira HTA tratatzeko aukerako farmakoak angina egonkorra duten pazienteetan. |
| A | Aurrez MIA bat izan duten paziente guztiak, ezker-bentrikuluko disfuntzio sistolikoa dutenak eta ez dutenak, AEBI batekin tratatu behar dira, botika horien kontraindikaziorik edo horien kontrako jasanezintasunik ez badago behintzat. |
| A | Aurrez MIA bat izan eta disfuntzio sistolikoarekin agertzen diren HTA kasuetan, pazienteek AEBIlekiko intolerantzia badute AHA II bat gomendatzen da. |
| B | Kaltzio-antagonistak ez dira sartzen aurrez MIA bat izan duten paziente hipertentsoen hasierako tratamenduan. PAREN helburuko zifretara iristeko HTAren kontrako tratamendua osatzeko beharrezkoak direnean soilik gomendatzen dira. |
| A | Kardiopatia iskemikoa eta hipertentsio arteriala duten paziente guztietan benetan baloratu behar da tratamenduan AEBI bat gehitzeko aukera. |
| B | Kardiopatia iskemikoa duten paziente hipertentsoetan, betablokeatzaileen alternatiba moduan kaltzioaren antagonistak (verapamil, amlodipino eta nifedipino GITS) erabil daitezke. |

2007

Gomendioa (jarraipena)**2007**

- | | |
|----------|---|
| B | Kardiopatia iskemikoa duten paziente hipertentsoetan sintomak kontrolatzeko edo PAREN helburuko zifretara iristeko betablokeatzaileari beste botika bat gehitzea beharrezkoa gertatuz gero, dihidropiridina bat erabiltzea gomendatzen da. |
| B | Ez da berehalako askapena duen nifedipinorik erabili behar angina duten paziente hipertentsoetan. |
| ✓ | Kardiopatia iskemikoa duen hipertentsoaren tratamenduan AEBI bat gehitzen baldin bada, saiakuntza klinikoetan erabilitako dosietara iristen saiatu behar dugu (ramipril 10 mg, perindopril 8 mg), batez ere aurrez ezarritako PAREN helburuko zifrarik lortu ez bada. |

* Morbimortalitateari dagokionez, ezin da argi eta garbi ondorioztatu diferentziarik ez dagoela bi taldeen artean.

3.3.6. Gaixotasun zerebrobaskularra**ERANTZUTEKO GALDERAK**

- Zein da aukerako tratamendua istripu zerebrobaskular bat izan duen paziente hipertentsoarentzat?

2007ko EGUNERATZEA

Metaanlisi berria (160)
Aldaketarik ez gomendioan

IZB bat jasan duten pazienteetan (hipertentsoen % 60-65ean gertatzen dira horrelakoak) egindako metaanalisiak (160), eta horren barruan sartzen da PROGRESS ikerketa ere (161), sendotasuna eskaintzen die hipertentsoaren kontrako tratamenduak IZB berri bat jasateko arriskua gutxitzen duela dioten frogei, baina ez dago alde estatistikoki esanguratsurik hilkortasun kardiobaskularraren murrizketan, ezta hilkortasun totalean ere.

SKAen
BS
1+

Eta paziente horien aukerako tratamenduari dagokionez, diuretikoak eta/edo AEBlak aukera egokia izan zitezkeen metaanalisi horren emaitzei kasu eginez gero. AEBI + diuretikoa konbinazioa da itxuraz onura gehien dakarrena, IZB berriaren, MIAREN eta

gertakari baskularren arriskua gutxituz (datuak SKA bakarrekoak dira, PROGRESS izenekoarenak hain zuzen); diuretikoek eurek bakarrik (indapamidak batik bat) IZB berria izateko arriskua eta gertakari baskular totalena gutxitzen dute, baina ez, ordea, MIAren arriskua, eta AEBlen monoterapiak, azkenik, MIAren arriskua soilik murrizten du (bi SKAen datuak, PROGRESS eta HOPE izenekoarenak).

ECA
1+

Saiakuntza hauen mugetako bat da PA zifra txikiagoak lortu zirela tratamenduaren adarrean plazeboarenean baino, eta beraz, ezin bazter daiteke onura edo mesedeen zati handi bat PA zifren jaitsiera hutsak eragindakoak izatea.

Gomendioa

- | | |
|----------|---|
| A | Istripu zerebrobaskular bat jasandako paziente hipertentso guztiak botika antihipertentsiboekin tratatu behar dira. |
| A | Indapamida gehi perindopril konbinazioa egokia da aurrez IZB bat izan duen paziente hipertentsoaren tratamendurako. |

3.3.7. Arteriopatia periferikoa

ERANTZUTEKO GALDERAK

- Zein da hipertentsioaren kontrako tratamenduaren pauta klaudikazio intermitentea duen pazientean?

2007ko EGUNERATZEA

BS berria (162)

Aldaketarik ez gomendioan

Arteriopatia periferikoan HTAren tratamenduari buruz egindako Cochrane berrikuspen batek (162) ez du aurkitu emaitza-aldagai gisa gertakari kardiobaskularrak ebaluatzen dituen inolako ikerketarik. Klaudikazioko distantzia edo orkatila/besoa indizearen aldaketak bezalako aldagaietan ez zen diferentzia estatistikoki esanguratsurik sumatu taldeen artean.

SKAen
BS
1+

HOPE saiakuntzaren barruko azpitalde-azterketa batean (163), arteriopatia periferikoa zuten pazienteen artean (erdia, % 50, hipertentsoak ziren), 10 mg ramiprekin egindako tratamendua gertakari kardiobaskularren murrizketarekin lotzen da, arteriopatia periferiko sintomatikoa nahiz asintomatikoa duten pazienteetan. Soilik 40 pazienteekin (ez hipertentsoak ezta diabetikoak ere) egindako beste ikerketa batean (164), 10 mg ramipreko dosiak gehitu egin zuen minik gabeko ibil-denbora, eta baita ibilbide totala ere. Ikerketa horiek muga asko dituzte, ordea, eta hortik ateratzen den ebidentzia ez da aski adituen ustez indikazio honetan AEBlak bereziki gomendatzeko.

SKA
1+

Betablokeatzaileen erabilerari dagokionez, gidaren aurreko bertsioan adierazitako froga eta ikerketa berek jarraitzen dute indarrean (10).

SKAen
BS
1+

Gomendioa	
B	Arteriopatia periferikoa duten pazienteetan, HTAren tratamenduak gomendio orokorrak jarraitu behar ditu.
B	Betablokeatzaile kardioselektiboak erabil daitezke maila arin edo moderatuko arteriopatia periferiko egonkorrean, horretarako indikazioa sendoa baldin bada betiere.

3.3.8. Ezkerreko bentrikularen hipertrofia

ERANTZUTEKO GALDERAK

- Zein da HTAren aukerako tratamendua EzBH kasuetan?

2007ko EGUNERATZEA

Galdera berria

LIFE ikerketan (165) ez zen diferentziarik aurkitu losartan eta atenolol botiken artean hilkortasun kardiobaskularri dagokionez (eta horixe zen ikerketaren aldagai nagusia), baina hala ere losartan hobea izan zen IZBaren murrizketan. Paziente diabetikoen azpitaldean (109), losartanen onurak handiagoak izan ziren atenololekin alderatzen badugu, eta hilkortasun-tasa totalak ere behera egin zuen.

SKA
1++

4,6 urteko jarraipena egin zuen LIFE azpi-ikerketa batek ikusi zuen EzBHaren atzerakada hilkortasun kardiobaskularraren eta hilkortasun totalaren murrizketarekin lotua dagoela (166).

Beste metaanalisi batek (167) antihipertentsiboen mota diferenteak ezkerreko bentrikuluaren masaren atzerapenean duten eragina aztertzen du. AHA II botikek % 13 murriztu zuten bentrikulu-masa hori (KT: % 8-18), kaltzio-antagonistek % 11 (KT: % 9-13), AEblek % 10 (KT: % 8-12), diuretikoek % 8 (KT: % 5-10) eta betablokeatzaileek, azkenik, % 6 (KT: % 3-8). Ez zen alde esanguratsurik aurkitu bikoteka egindako konparazioetan, betablokeatzaileen kasuan izan ezik, hauek AHA II, kaltzio-antagonistak eta AEblek baino gutxiago murrizten baitute ezker-bentrikuluaren masa.

PKGaren aurreko bertsioan nahiago izan zen losartan erabiltzea atenolol erabiltzea baino, EzBH duten hipertentsoen tratamenduan, diabetikoetan bereziki. Baina gaur egungo ebidentzien argitan, eta EzBHaren atzerapenean eraginkortasun-maila txikiagokoa izan daitekeela kontuan hartuz (ikus betablokeatzaileen atala), atenolola ezin har daiteke konparatzaile egokitzat. Horregatik, antihipertentsiboen familia diferenteen arteko saiakuntzak egin beharko lirateke, egoera honetan gomendio sendoak eman ahal izateko.

Gomendioa

2007

D

Ezkerreko bentrikuluaren hipertrofia baldin badago, HTAren tratamenduak gomendio orokorrak jarraitu behar ditu.

3.3.9. Asma eta BGBK

ERANTZUTEN GALTZERAK

- Zein da hipertentsioaren kontrako tratamenduaren pauta asma edo BGBK duen pazienteetan?

2007ko EGUNERATZEA

2 Cochrane BS eguneratu berri (168;169) eta 2 behaketa-ikerketa berri (170;171)

Aldaketarik ez gomendioan

Bi Cochrane berrikuspenek (184,185) erakusten dutenez, epe laburrera, betablokeatzaile kardioselektiboak erabiltzeak ez dakar birika-funtzioaren aldaketa esanguratsurik asma edo maila arin nahiz moderatuko BGBK duten pazienteetan. Asma edo BGBK eta gaixotasun kardiobaskular asoziatuak zituzten eta betablokeatzaileekin tratatuak ziren pazienteetan egindako behaketa-ikerketen (170;171) datuek erakusten dute botika horiek ez dutela gehitzen arrazoi guztiengatik heriotza-tasa ezta arnas aparatuko okerragotzeak gertatzeko arriskua ere beste antihipertentsibo batzuekin konparatzen direnean. Hala ere, behaketa-ikerketak direnez, alborapen-arriskua ezin da baztertu. Horregatik, betablokeatzaileak erabili ahal izango lirarteke paziente horietan, baldin eta indikazio sendorik (kardiopatia iskemikoa edo bihotz-gutxiegitasun kongestiboa) balego.

**SKAen
BS
1+**

**Behaketazko
ikerketak
3**

Gomendioa

B	Asma edo BGBK duten pazienteetan, hipertentsioaren tratamendurako emandako gomendio orokorrak jarraitzea komeni da.
B	Asma edo maila arin nahiz moderatuko BGBK duten pazienteetan, betablokeatzaile kardioselektiboak kontu pixka batekin erabil daitezke, betiere indikazio sendorik (kardiopatia iskemikoa edo bihotz-gutxiegitasun kongestiboa) baldin badago.
✓	BGBK eta asma larria kardiopatia iskemikoarekin elkartzen direnean, betablokeatzaileen erabilera indibidualizatu egin behar da, neurri horren onurak eta arriskuak baloratuz.

3.4. Terapia konbinatu farmakologikoa

ERANTZUTEN GALDERAK

- **PAren helburu edo xede-zifrak lortzen ez badira, zer da hobe: monoterapiako antihipertentsiboaren dosia gehitzea edo beste botika batekin konbinatzea?**

2007ko EGUNERATZEA

**BS berria (111) eta 2 SKA berri (94;110)
Gomendio aldatua**

BS batek (111) aurkitu duenez, monoterapian farmakoen dosiak bikoizteak ez omen du modu zuzenki proportzionalean hobetzen PA zifren kontrola; diuretika, BB eta kaltzio-antagonistekin, ordea, nabarmen gehitzen da albo-ondorioen maiztasuna eta ez, aldiz, AEBlen eta AHA lleen kasuan. Dosiaren erdian erabiliz gero, aitzitik, PA zifren jaitsiera txikiagoa lortzen da (% 20 ingurukoa), baina albo-ondorioen murrizketa askoz ere garrantzitsuagoa da arestian aipatu diren hipertentsioaren kontrako botiken aurreneko hiru familiekin.

**SKAen
BS
1+**

BS horrek berak 6 konbinazioen datuak eskaintzen dizkigu (diuretika + AEBl, diuretika + BB, diuretika + kaltzio-antagonista, diuretika + AHA II, kaltzio-antagonista + AEBl, kaltzio-antagonista + BB). Emaitzek erakusten duten bezala, PA zifren kontrola espero zitekeena baino apur bat txikiagoa da batura edo adizioaren eraginagatik, baita dosi-erdian erabiltzen badira, eta albo-ondorioak asko murriztea da abantaila nagusia (% 10,4 dosi estandarrean vs. % 7,5 dosi-erdian). Arrazoi horiengatik, berrikuspenaren ondorioa da antihipertentsiboak planteatu daitezkeela konbinazioan, dosi estandarren erdian diuretikoen, BB eta kaltzio-antagonisten kasuan, eta ohizko dosietan AEBlen eta AHA lleen kasuan.

Zein asoziazio aukeratu behar den erabakitzeko, botika antihipertentsibo diferenteen ezaugarri farmakologikoei erreparatu beharko diegu batez ere, hipertentsioaren kontra duten eraginkortasuna potentziatu nahian, eta albo-ondorioak minimizatuz (2. irudia). Ikuspegi horretatik, lehenengo zutabeko botikak bigarren zutabeko edozeinekin konbinatzea planteatzen da, eta baita alderantziz ere. Zutabe bereko farmakoen arteko konbinazioa ez da hain gomendagarria, HTAri asoziatutako gaixotasunen bat dela medio indikazio espezifiko edo bereziren bat ez badago behintzat (10).

ONTARGET ikerketan (110) AEBI + AHA II asoziazioak (telmisartan gehi ramipril) 2,4 mm Hg murriztu zuen PAS eta 1,4 mm Hg PAD, ramiprilekin alderatuz gero; baina giltzurrun-funtzioaren narriadura esanguratsua izan zen (% 1,1ekoa) eta baita albo-ondorioengatik tratamendua bertan behera utzi zutenen proportzioa ere (% 29,3), arrisku kardiobaskular altuko biztanleria baten barruan hori guztia. Asoziazio hori ez da PArein jaitsiera-maila gehitzeko gomendatzeko moduko aukera bat, duela gutxiko metaanalis batek aurreratzen zuen bezala (172)


SKA
1++

SKAen
BS
1+

SKA
1++

Azkenik, alfablokeatzaileak edozein botika-talderekin konbina daitezke, baina estrategia hori beste asoziazio batzuk porrot egin edo erabili ezin diren kasuetan bakarrik erabili behar litzateke (10).

2. irudia **Botika antihipertentsiboak asoziatzeko eskema**



Gomendioa

2007

A

Monoterapia aski ez denean, hobe da botika antihipertentsiboak dosierdian konbinatzea (diuretikoaren, BBen edo kaltzio-antagonisten kasuan) edo ohizko dosietan (AEBlan edo AHA II botiken kasuan), monoterapiari jarraitu eta dosiak bikoiztea baino.

2007

D

Ikertuak izan diren asoziazioen artean botika antihipertentsiboen konbinazioa aukeratzeko, profesional bakoitzaren irizpideak balioko du, botika horien ezaugarri farmakologikoak eta albo-ondorioak sorrazteko duten profila kontuan hartuz betiere.

2007

A

Ez da gomendatzen AEBI + AHA II konbinazioa erabiltzea PArein jaitsiera-maila gehitzeko

3.5. Urgentzia hipertentsiboak

ERANTZUTEN KOTZUTAKO GALDERAK

- Tratatu behar al dira paziente baten PA zifra larriak xede-organoen erasanik ez badago?

2007ko EGUNERATZEA

Galdera berria

Urgentzia hipertentsiboaren definizioa, PA zifrak jaistea lortzeko berehalako tratamendua eskatzen duen egoera bezala, eztabaidan dagoen kontua da eta proposamen gehienak adostasunaren bidetik lortu dira, edo kalitate-maila apaleko behaketa-ikerketetan, kasuen serieetan edo SKAetan oinarrituak daude. Adituak bat datoz eta **emergentzia (edo larrialdi) hipertentsiboa** esaten diote, PA zifra altuez gain [$> 180/120$ (173) edo $> 180/110$ (174)], xede-organoen erasana dagoenean (entzefalopatia hipertentsiboa, IZB, biriketako edema akutua, ezkerreko bentrikuluaren hutsegitea, aortaren disezioa, kardiopatia iskemikoa, giltzurruneko gutxiegitasuna eta/edo eklampsia). Alderantzizko kasuei **urgentzia hipertentsiboa** edo **hipertentsio larria** esaten zaie (174).

**Adituen
iritzia**
4

PA zifren gorakada hauen ohizko aurkezpen klinikoa aski ezaguna da larrialdiz-erbitzuetan egindako behaketa-ikerketek eskertzen (175;176). Egoera horietako % 76 urgentziak izan ziren eta gainerako % 24 emergentziak. Urgentzia hipertentsiboetan gehien aipatutako sintomak hauek dira: buruko mina (% 22), epistaxia (% 17) eta ahuldadea (% 10). Emergentziaren sintomarik usuenak, berriz, ondorengoak dira: bularraldeko mina (% 27), disnea edo arnasestua (% 22) eta defizit neurologikoa (% 21).

**Behaketa-
ikerketak**
3

Xede-organoen erasanik gabeko PA igoerek izan dezaketen eragin pronostikoari dagokionez, VA Cooperative Trial ikerketaren datuen arabera konplikazio kardiobaskularrak izateko arriskua txikia da epe laburrera (177).

Tratamendua vs. plazeboa konparatzen duten aurkitutako gainerako SKA guztiek PA kontrolaren gainerako tarteko emaitzak besterik ez dituzte neurtzen (178).

SKA
1+

Xede-organoen erasanik gabeko PA zifra altuak tratatu aurretik, kontuan eduki behar da:

- 1) PA neurketak errepikatzeak lor dezakeela PAREN balioak zifra moderatuetara ekartzea, paziente gutxiarekin egindako SKA batek (179) eta atzera-begirako azterketa batek (180) erakusten dutenez, eta baita PA zifren bere kasako beherakadaren zati handi bat batez bestekora itzultzeko fenomenoak azal dezakeelako ere (181).
- 2) Hasierako PAREN beherakada azkar batek ez du hobetzen 24 ordura egindako kontrola, ezta astebetera egindakoa ere (182).
- 3) PA azkarregi jaisteak baditu bere arriskuak ere, adibidez hipotentsioa, sedazioa, buruko mina edo aurpegiko eritema, baina horietako gehienak inolako ondorioz utzi gabe konpontzen dira (178). Dena den, mihipeko nifedipinoaren erabilera ondorio larriekin lotu da: prozesu iskemikoak agertzea edo lehendik zeudenak okerragotzea (178), MIA (183;184) edo ezker-bentrikuluaren hutsegitea (185), normalean PAREN jaitsiera azkarrak (hasierako balioaren % 25 baino gehiago) eragindakoak izaten direnak.

SKA
1+

**Kohorte-
ikerketak/
Ikerketa
deskribatzaileak**
2+/3

Ebidentzia nahiko ahula den arren, adituak bat datoz xede-organoen erasanik gabeko tentsio-igoeraren premiazko tratamendua zalantzan jartzeko orduan, eta pazientearen PA epe luzera kontrolatzeko prozesua zorroztea da haien ustez igoera hori kontrolatzeko modurik hoberena.

Shayne-k (186) uste du prozedurarik egokiena PA zifrak 24-48 ordutan pixkanaka jaiste dela, une horretan xede-organoen erasan-irizpiderik gabe baina luzarora konplikazioen bat izateko probabilitate handia duten pazienteetan (bihotz-gutxiegitasuna, angina, GKB, giltzurruneko gutxiegitasuna edo IZBren aurrekariak dituzten pazienteetan).

**Adituen
iritzia**
4

Gomendioa

2007

C

Sintomarik gabeko edo xede-organoak erasanak daudela pentsatzeko arrazoirik ematen ez duten sintomak dauzkan paziente batek HTA zifra altua baldin badauka, balio hori berretsi egin behar da hurrengo hainbat neurketatan, faktore larritzaileak baztertu ondoren.

2007

D

Sintomarik gabeko edo xede-organoak erasanak daudela pentsatzeko arrazoirik ematen duten zeinurik gabeko paziente batek HTA zifra altua baldin badauka, PAREN pixkanakako jaitsiera lortzen saiatu behar da, paziente hurrengo egunetan ere berriro ikusiz bere tratamendua doitzeko.

The background features several overlapping geometric shapes in various shades of blue. On the left, there is a large, tilted square. To its right is a large circle. Below the square, there is a smaller, tilted rectangle. In the bottom right corner, there is a rounded rectangle containing the text.

ERANSKINAK

1. ERANSKINA

PKG eguneratzeko metodologia

Lan honetan, paziente hipertentsoaren arretak berarekin dauzkan arazoei buruzko ebidentziarik onenak biltzen saiatu gara.

Osakidetza 2002. urtean argitaratu zuen HTAri buruzko PKG hartatik abiatuz egituratutako plan baten arabera egin da eguneratzea, jatorrizko bertsioaren printzipio metodologiko berberak jarraituz.

Behin PKGren idazketa-taldea osatu eta HTAren inguruko adituen batzordea eratu ondoren, **galdera kliniko**en zerrenda bat osatu zen, aurreko bertsioan agertzen ziren galderak hartuz oinarri bezala batik bat, baina aldi berean bai idazketa-taldeak eta baita adituen taldeak ere, aurrez diseinatutako tresna berezia erabiliz, taldean eztabaidatu eta gero egindako proposamenak ere barruan sartuz.

Lanari ekin aurretik, “oinarrizko” PKG batzuk hautatu ziren, 2002-2006 urteen artean HTAri buruz argitaratutako **PKG nazional eta nazioarteko** desberdinei AGREE tresna aplikatu ondoren.

AGREE tresnaren arabera puntuaziorik handiena lortutako hiru gidak ondorengoak izan ziren: PKG kanadarra, NICE erakundearena eta BHS gida. Eta hiru PKG horiek erabili izan dira hurrengo pausoetan ere.

2002ko PKGan sartu ez ziren galdera berrietarako, hasiera batean bederen PKG horiek kontsultatu dira.

Ondorengo hiru aukeretako bat gerta zitekeen:

- ▀ Erantzundako galdera, oinarrizko gidetan eguneratua
- ▀ Eguneratzeko premian dagoen galdera
- ▀ Erantzun gabeko galdera

Aurreko bertsioan jorratuak izan ziren galderen kasurako, adituen batzordeak eskuratutako bibliografia erabili da, edo hautatutako PKGetan sartua zegoena eta 2002-2007 epealdira mugatutako literaturaren **bilaketa** sistematikoa eguneratu da. Alerta bibliografikoko zerbitzu bat mantendu izan da, PKG argitaratzeko unea iritsi arte bibliografian ikerketa garrantzitsuak gehitzeko.

Bilaketa guztietarako, erabilitako **informazio-iturriak** hauek izan dira: Clinical Evidence, Evidence Based Reviews, Cochrane Library, Medline, Embase, Índice Médico Español, IBECS, UpToDate eta Tripdatabase. Argitalpenen lehentasunak ondorengo ordenaren arabera ezarri dira: berrikuspen sistematikoak, saiakuntza klinikoak, kohorteen ikerketak, kasu-kontrolen ikerketak, azterketa deskribatzaileak eta adituen iritzia.

Ontzat eman eta kontuan hartutako erreferentziak gutxienez kanpoko bi berrikuslek **ebalatu** dituzte, bakoitzak bere aldetik, NICE (Nacional Institute for Clinical Excellence) erakundearen irizpide esplizituak erabiliz diagnostikoari buruzko galderen kasuan edota SIGN (Scottish Intercollegiate Guidelines Network) erakundearenak, berriz, pronostikoa, etiologia eta tratamenduari buruzko galderen kasuan. Alde edo desberdintasunik sortuz gero, adostasunez konpondu dira.

Zuzenean oinarritzko PKGetatik egokitu ez diren galderei dagokienez, ebaluatutako erreferentziak **ebidentzia-taula** moduan laburbildu dira, eta taula horiek **azken gomendioak** formulatzeko oinarria izan den “ebaluzio formal” edo “arrazoizko judizio” bat osatzeko aukera eskaini dute.


Aurreko gomendioei dagokienez, eguneratzearen ostean aukera hauek agertu dira:

- ▶ Aldatu gabeko gomendioa: **bat dator** aurreko PKGan gomendatutakoarekin.
- ▶ Gomendio osatua: gomendioa aurreko bertsioan agertzen zenaren **bide beretik** doa, baina ebidentzia berriak osatu edo hedatu egiten du aurreko gomendioa.
- ▶ Gomendio aldatua: ebidentzia berriek **aldaketa garrantzitsua** suposatzen dute, gomendioaren zentzuari dagokionez.

Gida hau **kanpoko berrikusle** adituek, bai hipertentsioaren arloan aditu direnek eta baita metodologian aditu direnek ere, ebaluatu dute, aurrez diseinatutako tresna baten bidez eta horren ondorioz aldaketa-proposamen bakoitzak bere aipamen bibliografikoa eduki behar du, aldaketaren justifikazio edo arrazoi moduan.

2. ERANSKINA

Paziente hipertentsoaren hasierako azterketa eta jarraipena



3. ERANSKINA

Presio arteriala modu egokian hartzeko arauak

(PKGren aurreko bertsioan oinarritua eta *-tik aldatua)

PA hartzeko ekintza pertsonaren ohizko baldintzetan egiten saiatu beharko litzateke. Horregatik tentsioa hartu aurreko 5 minutuetan gutxienez atsedena ziurtatu beharko genuke, neurketa berriz kontsulta-amaieran errepikatuz, beharrezkoa izanez gero.

Aztertutako pertsonaren aldetik:

- ▶ **Jarrera:** eserita, bizkarra apoiatuta, besoa erlaxatuta, estutuko duen inolako arroparik gabe eta mahai edo euskarri baten gainean apoiatuz, esku-ahurra gora begira dagoela eta ukondoa, bihotzaren mailan kokatua, zertxobait tolestuta.
- ▶ **Egoera psikofisikoak eta ingurumenekoak:** gutxienez 5 minutuko atsedena aurretik, gela lasaian eta tenperatura epelean. Baztertu beharrekoak: esfortzuak, antsietatea, erretzea, maskuria puztuta edukitzea, mina, edo ordu erdi lehenago zerbait jatea.

Behatzailearen aldetik

- ▶ Entrenamendu egokia, ikusmen eta entzumenaren baldintza egokiak. Merkurioko zutabea begien parean edukiko du.
- ▶ Ez biribildu zifrak. Tentsio-zifra zehatza idatziko da.

Neurtzeko tresneriaren aldetik

- ▶ Besokoa edo mahuka, telazkoa edo material sintetiko z egina. Horren barruan dago aire-ganbera, eta hauek izango dira aire-ganbera horren neurriak:
 - Zabalera: besoaren zirkunferentzia totalaren % 40-50. Zabalera bider 2,5 neurriak adierazten du mahuka horri dagokion beso idealaren zirkunferentzia. Adibidez: zabalera $12\text{ cm} \times 2,5 = 30\text{ cm}$. 30 cm-ko zirkunferentzia duen beso batek 12 cm-ko aire-ganbera duen mahuka behar du.
 - Luzera: luzeraren eta zabaleraren arteko erlazioak 2:1 izan behar du. Horretarako, besokoek inprimatuta izango dute onartzen duten gehienezko eta gutxienezko beso-zirkunferentzia.
- ▶ Puzteko sistema, pasoko balbula eta loturako hodia aldian behin berrikusiko dira, airearen ihesak saihesteko edo funtzionamendu-akatsak baztertzeko.

PA neurtzeko teknika

- ▶ Pertsona jarrera eta baldintza egokietan, aurreko ohar eta jarraibideen arabera.
- ▶ **Besoaren tamainara egokitzen den zabalerako mahuka erabili. Adibidez, besoaren perimetroa > 32 cm baldin bada, ezinbestekoa da mahuka zabala erabiltzea ("beso obesoentzako").**

- ▶ Lokalizatu arteria brakiala, besoaren barruko aurpegian zehar haztaperen bidez.
- ▶ Jarri mahuka aire-ganbera arteriaren taupadaren gainean egoteko moduan; eta jarraian, egokitu edo doitu behar bezala. Azpiko ertzak kubitu aurreko hobiaren 2 cm gainetik egon behar du kokatua.
- ▶ Mahukak sorbaldaren eta ukondoaren arteko erdigunean inguratu behar du besoaren zirkunferentzia. Mahukaren aire-ganberak besoaren % 80 inguratu behar du.
- ▶ Fonendoskopioa arteria brakialaren gainean kokatua, hobi kubitalean (ukondoko tolesaren aurreko aldean), presio arina eginez. Inoiz ez da sartu behar fonendoskopioa mahukaren azpitik.
- ▶ Puztu ganbera bizkor-bizkor 70 mm Hg-raino eta segi presioa gehitzen, 10na mm Hg-ko igoerekin, betiere pulsu erradiala haztatuz. Apuntatu zein presio-mailarekin desagertzen den pulstua eta zein mailatan agertzen den berriro despuzterakoan.
- ▶ Behatzaileak modu egokian jarri behar du fonendoskopioa, eta jarraian horren burua arteria brakialaren pulsuaren gainean ezarriko du, maiztasun baxuko posizioa (mintzaren bidezkoa alegia) erabiliz.
- ▶ Puztu ganbera bizkor-bizkor aurrez antzemandako zifra baino 20 edo 30 mm Hg goragoko mailaraino. Segidan, ireki balbula partzialki, aire-ganbera 2 mm Hg/segundoko erritmoan despuztuz.
- ▶ Aurreneko hots lehor eta errepikakorra agertzen den presio-mailari Korotkoff-en I. fasea esaten zaio eta horrek ematen du PAS. Hotsa desagertzeak Korotkoff-en V. fasea adierazten du eta baita PAD ere.
- ▶ Azkeneko hotsa desagertu ondoren, beste 10 mm Hg gehiago despuztu behar dira mantso-mantso, hots gehiagorik ez dugula entzungo ziur egoteko.
- ▶ Apuntatu PAS (I. fasea) eta PAD (V. fasea) ahalik eta modurik zehatzenean (2 mm Hg-ko tarteak diskriminatzuz).
- ▶ Errepikatu PAren neurketa, aire-ganbera erabat despuztu dela ziurtatu ondoren. Dena den, neurketa berri bati ekin aurretik minutu bat edo bi itxaron beharra dago.
- ▶ Neurtu PA bi besoetan eta bi emaitzetatik altuena hartu kontuan.
- ▶ *Neurketen kopurua: elkarrengandik 5 mm Hg-ko aldea baino gehiago ez duten ondoz ondoko aurreneko bi neurketen batez bestekoa lortu behar da.

Hauek dira PA behar bezala ez neurtzeko arrazoirik usuenak:

- ▶ Beso obesoaren kasuan mahuka estuak erabiltzea
- ▶ Aurrez atsedenik ez hartzea
- ▶ Bizkorregi despuztea
- ▶ Lortutako tentsio-zifrak zerora edo bostera biribiltzea

4. ERANSKINA

Presio arterialaren monitorizazio ambulatorioa (PAMA) egiteko gomendatzen diren aparatuak

(oszilometrikoak, Association for the Advancement of Medical Instrumentation/AAMIren protokoloak, edo British Hypertension Society/BHSrenak edo European Hypertension Society/EHSrenak jarraituz balidatuak*)

Aparatua	Tipoa	AAMI	BHS	ESH	Egoera
A&D TM-2430	Osz	Gainditua	A/A		Atsedenean
IEM Mobil O Graph (version 12)	Osz	Gainditua	B/A		Atsedenean
Meditech ABPM-04	Osz	Gainditua	B/B		Atsedenean
Save 33, Model 2	Osz	Gainditua	B/B		Atsedenean
Spacelabs 90207	Osz	Gainditua Gainditua Gainditua	B/B B/B A/B		Atsedenean Haurdunaldian Adinekoak zutik eta PAS <161 mmHg
Spacelabs 90217	Osz	Gainditua	A/A		Atsedenean
Suntech AGILIS	Osz			Pass	Atsedenean
Suntech Medical OSCAR 2	Osz			Pass	Atsedenean
Tensioday	Osz	Gainditua	A/A		Atsedenean

Association for the Advancement of Medical Instrumentation = AAMI, British Hypertension Society = BHS. TM = Takeda Medical. AAMIren irizpideak gainditzeko aztertutako aparatuaren eta merkuriokoaren artean presio arterial sistoliko nahiz diastolikoaren arteko aldeak ≤ 5 mm Hg izan behar du, eta desbiderapen estandarrak ≤ 8 mm Hg. BHS erakundearen arabera, aparatua balidatzeko irizpide hauek bete behar dira: gutxienez B mailakoa izan behar du presio arterial sistoliko eta diastolikoarentzat. A, B eta C mailak zera esan nahi dute: PArene neurketa-portzentajeak 5, 10 eta 15 mm Hg-ko tarteen barruan egon behar dutela, hurrenez hurren, merkurioko esfigmomanometroarekin alderatuz gero. Eta portzentaje guztiek adierazitako balioak baino txikiagoak edo horien berdinak izan behar dute maila edo gradu jakin bat lortu ahal izateko. Badira irizpide biak betetzen ez dituzten aparatuak ere, eta horrelakorik ez da aipatzen aurreko taulan.

* Begiratu eguneratzeak <http://www.dableducational.com> web-gunean

Aparatu estandarraren eta aztertutako aparatuaren arteko diferentzia absolutua (%)

Maila	≤ 5 mmHg	≤ 10 mmHg	≤ 15 mmHg
A	$\leq \% 60$	$\leq \% 85$	$\leq \% 95$
B	$\% 50-59$	$\% 75-84$	$\% 90-94$
C	$\% 40-49$	$\% 65-74$	$\% 85-89$
D	C mailaz azpikoa		

5. ERANSKINA

Presio arterialaren monitorizazio anbulatorioa (PAMA) erabiltzeko jarraibideak

(HTAren Elkarte Britainiarraren gomendioak, 2000. urtea)

1. Programatu monitorea 30 minutuz behin PAren neurketak egin ditzan.
2. Pazienteak erlaxatua egon behar du, gela lasai batean.
3. PA bi besoetan neurtu behar da.
4. Bi besoetako PA sistolikoaren arteko aldea < 10 mm Hg bada, jarri PAMA nagusia ez den besoan.
5. Baina aldea ≥ 10 mm Hg bada, monitorea PA altuena duen besoan jarri beharko da.
6. Hautatu mahuka egokia. Mahukaren ganberak besoaren % 80 inguratu behar du.
7. PAren neurketak ikusteko joera desaktibatu.
8. Pazienteei jarraibideak idatziz emango zaizkie.
9. Erakutsi pazienteari nola deskonektatzen den aparatua 24 ordu pasatu ondoren.
10. Egunez PA sistolikoaren eta diastolikoaren 14 neurketa baino gehiago egin behar dira eta PA sistolikoaren eta diastolikoaren 7 neurketa baino gehiago gauean zehar.

Pazienteari azaldu behar zaizkio:

1. Prozedura.
2. Puzteko eta despuzteko maiztasuna.
3. Nola despuztu behar den gailua eskuz.
4. Irakurketa-akatsen bat gertatuz gero, aparatuak berriro egingo duela neurketa.
5. Besoa geldi mantendu behar duela eta bihotzaren parean neurketa bitartean.
6. Neurketen artean jarduera normalak egin behar dituela.
7. Gaez monitorea jarrita mantendu behar duela, burkoaren azpian jarritz ohean dagoenean.
8. Arazoren bat izanez gero, osasun-zentrora dei dezakeela.
9. Eguneroko orria emango zaio, bertan apunta ditzan:
 - Neurketaren unean egindako jarduerak.
 - Ohera noiz doan.
 - Ohetik noiz jaikitzen den.
 - Noiz hartzen duen hipertentsioaren kontrako tratamendua.
 - Beste edozein sintoma.

6. ERANSKINA

Etxean presio arterialaren autoneurketa (PAAN) egiteko gomendatzen diren aparatu automatiko oszilometrikoak

(Besokoak edo eskumuturrekoak, Association for the Advancement of Medical Instrumentation/AAMIren protokoloak, edo British Hypertension Society/BHSrenak edo European Hypertension Society/EHSrenak jarraituz balidatuak*)

Besoko aparatua	Tipoa	AAMI	BHS	ESH	Erabilera
A&D UA-631 (UA-779 Life Source)	Osz			Gainditua	Atsedenean
A&D UA-705	Osz		A/A		Atsedenean
A&D UA-767	Osz	Gainditua	A/A		Atsedenean; ez PA altua
A&D UA-774 (UA-767 Plus)	Osz		A/A		Atsedenean; taula ez-osoak
A&D UA-787	Osz			Gainditua	
Colson MAM BP3AA1-2	Osz			Gainditua	Atsedenean
Microlife BP 3AC1-1	Osz			Gainditua	Atsedenean
Microlife BP 3AC1-1 PC	Osz			Gainditua	BP 3AC1-1 Baliokidetasuna
Microlife BP 3AC1-2	Osz			Gainditua	BP 3AC1-1 Baliokidetasuna
Microlife BP 3AG1	Osz		A/A		BP 3BTO-A Baliokidetasuna
Microlife BP 3BTO-1	Osz		A/A		BP 3BTO-A Baliokidetasuna
Microlife BP 3BTO-A		Gainditua	A/A A/B		Haurdun normotentoetan Proteinuriarik gabe Pre-eklanpsian
	Osz	Gainditua	BB		
		Gainditua	A/B		
Microlife BP 3BTO-A(2)	Osz		A/A		BP 3BTO-A Baliokidetasuna
Microlife BP 3BTO-AP	Osz		A/A		BP 3BTO-A Baliokidetasuna
Microlife BP A 100	Osz			Gainditua	BP A 100 Plus Baliokidetasuna
Microlife BP A 100 Plus	Osz			Gainditua	Atsedendian
Microlife RM 100	Osz		A/A		BP 3BTO-A Baliokidetasuna

(jarraitu)

Besoko aparatua	Tipoa	AAMI	BHS	ESH	Erabilera
Omron 705IT	Osz	Gainditua	A/A	Gainditua	Arrazoizko egokitzapena haur eta adoleszenteetan
Omron M5-I	Osz			Gainditua	
Omron M6				Gainditua	Atsedenaaldian
Seinex SE-9400	Osz			Gainditua	Atsedenaaldian

Eskumuturreko aparatua	AAMI	BHS	ESH	Egoera
Braun BP 3550				Gainditua Atsedenaaldian. Zalantzazkoa PArean zifrak oso altuak direnean
Braun PrecisionSensor BP2550 (UG)				Gainditua Atsedenaaldian
